

Nafarroa Behereko euskara

IÑAKI CAMINO*

1. SARRERA

1.1. Hamazazpi urte badu gaurgero 1987an Nafarroa Behereko euskara deskribatu edo genuenetik. Ordukotik egungora aldatu da gure ikuspegia, uler daitekeenez. Hego Euskal Herritik so egin genion gaiari orduko hartan, ez Nafarroa Beherearen barrenetik; ikuspegi horren eragina aise sumatzen da orduko gure saioan. Oraingo honetan alderantziz ekin diogu, barrenetik begiratzuz, ibarrik ibar, bazterrik bazter, batetik bestera zein desberdintasun dagoen jakiteko; hain zuzen ere, hortik abiatuko dugu saio hau, aldeak zertan eta nondik nora diren adieraztetik. Hizkeren arteko lotura hertsia ere aztertu dugu, handia baita Nafarroa Behere gehieneko ibarretan ageri diren hizkuntza-ezaugarri berdin edo berdintsuen kopurua.

Pertsonen arteko eta gizataldeen arteko harremanen nahiz hartu-emanik ezaren arabera moldatzen dira historikoki hizkerak: orografia, hidrografia, lana non ematen duten edo non egin daitekeen, salerosgo hartu-emanak non gauzatzen diren... Hizkerak bilakarazten dituen oldar historikoaren sorburua gizarteko eta naturako eragile horien guztien araberakoa da.

1.2. Nafarroa Beherean aise ikus daiteke erdiguneko multzo orokorrenetik edo nagusienetik zein hizkera bereizten diren. Lapurdin gaindi Euskal Herriko erdigunetikako hizkuntza-eragina eta espezifikoki Lapurdikoa mendebaletik biltzen dute Bidarrai batek edo Arberoako mendebaleko herriek. Ondean Zuberoa izanik Pettarrara joateko orografia-arazorik ez duten amikuztarrek ere, Nafarroa Behereko ezaugarrien multzo orokorretik saihesten diren hizkuntza-aldaera batzuk darabiltzate. Goiti galdurik bezala Lapurdiko barrutian kokaturik dagoen Bardozeko hizkuntza-ezaugarriei dagokienez, bardoztarrek amikuztarrekiko duten hizkuntza-lotura hertsia Aturri ibaiari ere zor zaiola esan liteke.

* Euskal Herriko Unibertsitatea / EHHA – Euskaltzaindia

Beren ohar guztiak aintzat hartu ezin izan badituz ere, zinez eskertzen ditut Irantzu Epelde, Ivan Igartua, Edu Zelaieta eta Koldo Zuazo.

Zaraitzu-Erronkarietarik gertatzen den bezala, Oztibarretik edo Garazitik Zuberoara iragateko bortu gorak gaintitu behar ditu gizakiak: mendiko bazkalekuetara joanen da bai goiti, Zuberoako mugetarat, baina merkatura *Doñanera* joko du astelehenero. Aldea dago mendiaz bi alderdietako hizkuntza moldeen artean. Baigorri bezain menditsua ez izanik ere, Arnegiko, Ezteren-zubiko eta Mendibeko mendi-ibarrak ezin ahantzi ditugu Garazin.

Pirinioen altzoan dauden herri bakan batzuk alde batera utzirik, aski eremu zelaia da Nafarroa Beherea eta ez dirudi bertako jendeen arteko harremanak behaztopa handirik izan duenik. Nafarroa Beherearen hegoaldean, Nafarroa Garaia zulatzen duen ziria dirudi Baigorriko kantonamenduak, hozka baten eitea du: Baigorriko Banka, Aldude eta Urepele, mendien artean ditugu, Luzaidek, Erroibarrek, Esteribarrek eta Baztanek inguraturik. Baigorriko hizkuntza-ezaugarri batzuek Ipar Euskal Herriko mendebalderagoko euskararen oihartzuna dakarte eta Nafarroa Behere gehiengan ageri diren zenbait ezaugarritarik zertxobait urruntzen dira. Besterik da frogatu ahal izatea, Nafarroa Behereko berrikuntzetarik desberdinak diren Baigorriko bereizgarri gordetzaile batzuk, Baigorriren izaera menditsuaren eta bakartze orografikoaren ondorio diren, ala ondoko Baztan, Esteribar eta Erroibarrekiko hartu-emanari ote dagozkion, ala bi arrazoiak batera biltzen ote diren.

Garazitik edo Iholdiko kantonamendutik zetorkeen eragina zehazki zerk neutralizatu du Baigorri? Zerk baino, zerk gehiago? Enpirikoki froga ote daiteke, Baztango, Esteribarko, Erroibarko eta Baigorriko diren ezaugarri batzuk (baina era eskusiboan beren bereizgarri ez direnak), Nafarroa Behereko mintzo orokorretik saihesten direnak, mugaz bi aldeetako ibar hauen arteko hartu-eman historikoari dagozkiola? Ez da aise.

Ohar gaitzen, bestalde, baigorriarrek, urepeldarrak eta aldudarrak barne, asteleheneroko merkatura Donibanera jo izan dutela, Garazira, han izan dutela *bilgia* eta Elizondora urtean behin joan izan direla ferietara; baina hori egungo errealitatea da. Hizkerak diren bezalakoak izatea eragin duten arrazoi historiko zaharrak ez ditugu ongi ezagutzen; ongi dakigu ordea, egun Baigorri ibarrak kudeatzen duen oihanaren atal bat, Alduide izeneko, aspaldian Erroibarrena eta geroago erroibartarrena eta baztandarrena izan zela, Zangozako merindadekoa; abeltzaintzaren aldetik lotura zinez hertsia izan da Luzaide, Erroibar, Esteribar, Baztan eta Baigorri ibarren artean: Sorogaingo fazeria adibide argia da; Iruñeak behar zuen haragia bilduko bazen, baigorriarren abeltzaintza zinez garrantzitsua zen (Esarte 1983: 40). Baztanetik Baigorriara bizitzera joanak eta Baigorritik Baztana ezkonduak ere izan dira historian zehar.

1.3. Itzul gaitzen orain hizkuntza-gaietara. Henri Guiter-en ikuspegian (1973: 103), Lapurdiko euskaratik Nafarroa Beherekora ez dago dialekto-muga justifika lezakeen hizkuntza-jauzirik. Bonaparteren ekialdeko eta mendebaleko behe-nafarrerren banaketaren gaia, bestalde, frankotan eztabaidatu da eta aurten joan zaigun Pedro Irizar zenak ikusi bezala, aldea ez da handia: zuketeta edota xuketeta alokutiboa erabiltzea aipatu ohi da arrazoitzat. Kontua da, ordea, zuketarik eta xuketarik ezarekin batera koherentzia geolinguistikoan doazen hizkuntza-ezaugarri gehiago ditugula Nafarroa Beherean, esaterako Baigorri “ekialdeko behe-nafarrerarekin” ez biltzeko, eta artean arrazoi horiei ez zaie garrantzirik eman; agian eskusiboak ez direlako ez zaie eman, baina

zuketa alokutiboa ere ez da eskusiboa, ez orain eta ez Bonaparteren garaian, indarrean dago Zuberoan nahiz Zaraitzun eta erabiltzen zuten euskaldun erronkariarrek ere. Aitortu behar da, ordea, lapurtarren begietan aski eskusiboa dela erabilera sistematiko hori; cf. Epelde (2003: 343); bestalde, daukan sistematikotasunagatik eta agerpen maiztasun handiagatik, garrantzi handia eman zaio dialektologian zuketa-xuketa kontu honi.

“Behe nafarrera” dialektoa delako ideia ere aski erroturik izan da gure artean. Ez dute Bonapartek eta haren jarraitzaile Irizarrek bakarrik baliatu, Azkuek eta Mitxelenak ere bazerabilten: Baigorri izan ezik Nafarroa Behere guztian egiten diren *noit* ‘norbait’ edo *zeit* ‘zerbait’ erako laburdura zenbaiten erabilera, *duen* > *diin* bezalako asimilazioak adizkietan, *bait* > *bit* monoptongazioa, *hantik* ‘handik’ & *heentik* ‘hebendik’ aldaerak, *elgar* izenordaina, *intzun* ‘entzun’ aldaera, *niz* ‘naiz’, *nintzan* ‘nintzen’, *zako* ‘zaio’ eta *dako* ‘dio’ aditz laguntzaileen konbinazioa, zuketaren nahiz xuketaren erabilera...; ezaugarri hauek guztiak elkarrekin ageri zaizkigunean, orain arteko tradizioan “Baxenabarreko eskuara”-tzat jo izan da mintzo hori. Adigai hau, gainera, aski zabaldu dago Ipar Euskal Herriko gizartean: zenbait jendek, hainbat idazlek eta astekari ezagunenek erabili dute.

Nafarroa Behereko eta Lapurdiko mintzoen arteko aldeaz ere idatzi da: baxenabartarra mintzo zakarragoa dela, idorragoa, lasterra, laburduretarako joera duela, idazkeratik urruntzen ari dela... (Haritxelhar 1963: 69 eta 73). Balorazioak aspaldikoak dira eta Jean Etxepare mirikuaren 1915eko aurkaritza-ikuspegian ez da nagusi dabilen iritzia ezkututzen (1984: 172): “Sarako lapurtarren handitik, nola Garaziko baxenabartarraren xehetik” diosku ematen zuela Jean Hiriart-Urruti idazleak. Lapurdiko euskararen idatzizko ohitura nagusien tradizioa ekialderagoko edo Nafarroa Behereko idazleen eraginez higatzen hasi zela eta XIX. mendean eragina areagotu zela ere aipatu da (Pikabea 1993); Nafarroa Behereko ezaugarriak Ipar Euskal Herriko astekari irakurrienean agertzeak L. Villasante, F. Krutwig eta K. Mitxelena euskaltzainengan XX. mendean sortu zuen arbuioa ere ezaguna da (Zuazo 1988: 346-45); iritzi bera haizatu zuen gerora I. Sarasolak ere. Alta, Nafarroa Beherea Zuberoaren eta Lapurdiren artean zubigintzan kokatzen zuen E. Larre euskaltzainak eta batuari buruz joate horretan, herria ez ahanzea aholkatzen (Camino 1988: 172-73).

Nafarroa Behereko euskarak bere izaera berezia duelako ideiak erro sakonak zeuzkan, baina dialektologialariak, eremu bateko hizkerak dialekto bilakarazten dituen hizkuntza-ezaugarri teknikoen berri jakin nahi izaten du, bere tasunak zein diren erakutsi. Usu zientzia mailara hurrandu nahirik eta iritsi ezinik dakusagun dialektologiak, “herrialde bat = euskalki bat” ideia erlatibizatu ohi du: bestelako kanonak ezartzen eta finkatzen ditu. Zuberoako euskararen nortasuna gogoan izanik, egokia da Ipar Euskal Herri gehieneko euskara deitzeko egun erabiltzen den “nafar-lapurtera” izena (Zuazo 1998).

1.4. Ipar Euskal Herriko euskara gaitzat harturik franko ikerketa egin dira, baina bertako dialektoez eta hizkeraz diharduten azterketak ez dira behar bezainbat egin: bertako ibarretako edo alderdietako euskaraz galdezka hasiz gero, berehalakoan ageri zaizkio hutsuneak filologoari edo dialektologialariari. Gibelamendu hori arintzeko lanean urrats bat izan nahiko luke artikuluhonek, 1987ko gure saio hura zertxobait sakontzeko ere balioko duelakotan; ez da zertan esan, orriotan ageri diren usteak eta ikuspegiak, etorkizune-

ko lan zehatzago eta berezituagoetan zehaztu eta xuxendu beharko direla. Guk lehen urrats haien jarraipentzat dakargu lan hau, bideko atal bat gehiago izateko asmoz, ez inola ere helmugaraino iritsitako emaitza gisa.

Euskal Herriko ekialdeko ezaugarritzat hartu ohi ditugun berezitasun ugari, Nafarroa Beherean gaindi ere aski hedaturik daudela erakusteko baliatu nahi dugu saio hau: Lapurdiko Aturrialdekoak, Amikuzekoak, Zuberoakoak, Erronkarikoak eta Zaraitzukoak ez ezik, Oztibarrekoak, Garazikoak eta Arberoa-Iholdi alderdikoak ere bai baitira ekialdekotzat jo ohi ditugun ezaugarri horietarik anitz, lanean zehar agerian geldituko denez. Baigorri aldean ikusi dugu halako isoglosa multxoak: gainerateko Nafarroa Beherean erabiltzen diren ezaugarri batzuk ez ditugu ibar honetan aurkitu, eta baditu bere-bereak diren berrikuntzak ere.

1.5. Lana egiteko baliatu ditugun iturriak, ahozko mintzoan oinarriturik osaturikako idatziak dira batzuk: Barandiaran 1948 (Urepele), Duhau 1993 & 2003 (Beskoitze), Duny Pétré 1959 (Donibane-Garazi, Iholdi, Lekunberri), Haritxelhar 1963 (Baigorri), Lacombe 1911-1912 (Aldude) eta Trebitsch 1913 (Baigorri, Donibane-Garazi, Bardoze, Amorotze, Behauze). Inkestetan erdietsi datuak ere baliatu ditugu: EAEL 1984-1990 adibide gutti batzuetan¹, baina bereziki Euskaltzaindiaren EHHA bilduma (1986-1994) erabili dugu². Gure artikulu honetako hainbat eta hainbat datu EHHA iturriari dagozkio eta adierazi dugun legez, saio hau Nafarroa Beherean oinarritzen da³.

Beste aldetik, guhaurek Orzaizen (1985), Heletan (1986), Oragarren (1985) eta Beskoitzen (1985) egin grabazio batzuetako emaitzak ere baliatu ditugu, eta baita 1994an Ezterenzubin eta 2004ko udan Baigorri herrian bildu datu batzuk ere; ez ditugu baztertu 1982ko udaberrian Heletan guhaurek bildu ohar batzuk. Aditzaren morfologia aztertzeke, berriz, Pedro Irizarren lana izan da gure oinarria (1999, 1999-2002), baina X. Alberdirena (1996) ahantzi gabe; oro har, datuen zenbatekoan EHHA-ko emaitza, Irizarren bilduma eta guhaurek bildu datuak dira nagusi.

¹ Baigorriko Bidarra eta Urepele, Arberoako Donamartiri, Iholdiko kantonamenduko Irisarri, Garaziko Uharte eta Amikuzeko Amenduze galdezkatu ziren Nafarroa Beherean.

² Arberoa-Iholdi alderdian, Irisarri, Izturitze, Armendaritze eta Landibarre, nahiz hondarreko herri honek ekialdeko joeretara gogor jotzen duen. Baigorriko kantonamenduan, Aldude, Bidarra eta Baigorri herria. Garazin, Luzaide, Arnegi, Uharte, Ezterenzubi, Behorlegi eta Gamarte. Oztibarren, Jutsi eta Larzabale-Arroze-Zibitze. Amikuzen, Arruta-Sarrikota, Garruze eta Arboti-Zohota. Bastidako datuak ez ditugu erabili: badira euskaldunak Bastidan, baina aihertarrak, hazpandarrak, beskoiztarrak edo bardoiztarrak izan ohi dira mintzoaren aldetik; ez dago Bastidako bereko jatorrizko euskararik.

³ Herrialde honetako EHHA-ko inkesta gehienak Xarles Videgainek egin zituen; Gotzon Aurrekoetxeak ere egin zituen inkesta ale batzuk, Alduden, Bidarrain, Arnegin, Uharte-Garazin eta Irisarri, zehazki. Datuak transkribatzea Videgainek egin zuen Nafarroa Behere guztian, baina Aurrekoetxeak ere egin zuen lan honen zati bat; Izaskun Etxebestek ere herri anitzetako datuak transkribatu zituen Nafarroa Beherean. Bihoazkie hirurei eta EHHA egitasmo zuzendari Beñat Oihartzabali gure eskerrik zinezkoenak datuok baliatzeko aukera izan dugulako.



1.6. Gure lanean hizkuntza-ezaugarriek Nafarroa Beherean ageri duten banaketa aurkeztuko da lehenik: Amikuzeko bereizgarriak, Baigorrikoak, Nafarroa Behereko mendebalekoak eta Nafarroa Beherea ipar / hego banatzen dutenak. Ondotik, Nafarroa Beherean batasuna erakusten duten ezaugarriak zein diren ikusiko dugu. Batasun-ezaugarri hauetarik anitz ez dira Nafarroa Beherekoak soilik; ederki ikusten da hori Lapurdiko Aturrialdeko Bardoze eta Beskoitzeko nahiz Hazparneko eta Makeako datuei so eginez gero. Orain Irantzu Epelderen 2003ko lana baitugu, Lapurdiko berri sakonago jakin dezakegu alderatzeari ekiteko. Loturen berri hobeki emateko, Zaraitzuko, Aezkoako, Baztango eta Bidasoaldeko berri ere eman liteke, baina ez dugu, lana soberra luzatu nahi izan eta alderatzea, Lapurdiko euskararekin egin dugu. Nafarroa Behereko euskarari atxikituko gatzaizkio: ohar bedi euskalkiak ezagutzeko lanean urrats bat gehiago dela artikulu hau, ez dela ekialdeko hizkerez ikuspegi orokorra emateko asmoz idatzi; Baztan-Bidasoa alderdia ez aztertzea hutsunea da, baina etorriko dira eremu horren gaineko lanak ere. Nafarroa Behereko eten eta batasun ezaugarriak eta Lapurdiko euskararekiko loturak ikusi ondotik, zortzigarren atalean zenbait ondorio aterako dugu.

2. AMIKUZEKO BILAKABIDEAK

Bigarren atal honetan Nafarroa Beherean mugak edo etenak finkatzen dituzten Amikuzeko hizkuntza-ezaugarriak aurkeztuko ditugu, baina hiztunak “xarnegu”-ak diren, euskaraz gainera gaskoina ere ematen ote duten, aintzart hartu gabe⁴.

⁴ Hizkuntzen arteko ukipenak dialektologian ere eragina duela egia izan daiteke, baina bilakabide horien barrunbeak, zeharbideak eta bitartekoak argi azaltzea ez da aise (Haase 1994: 184-5).

Amikuzeko euskara ez da literaturan arras erabili; cf. Videgain (1983). R. Trebitsch-en Amorotzeko berriemaile Adolf Berdekok zioenez, mintzo hau ez da lapurtarra bezain gozoa, ez eta Zuberoakoa bezain habila ere eta apezek berek, beren pheedikietan bazterrean uzten dute (Etxebarria 1994: 65).

2.1. Bokalen palatalizazioan Amikuzeko eta Bardozeke *ü* aipa daiteke⁵; ezin ahantzi bokal horretaz *ñ*abardura ugari egin daitekeela, ea Amikuze guztian berdin ahoskatzen den eta abar (Haase 1994: 175-6): *nüntziün* (Zohota), *dakozüt, sü, ützi, büriko* (Behauze), *ziün* ‘zuzun’, *aigü* (Oragarre), *üdan, güziak, erbi ümiak, xehatüa, süiain* ‘suaren’ (Arruta), *ülü* ‘eulia’, *teilatü, eitasün* ‘eritasuna’ (Garruze), *ezkondü, düzü, bürian, Amiküze, süia, khostü* (Arboti). Koldo Artolaren arabera, Oragarren, Amorotzen, Mithiriñan, Ostankoan, Uharte-Hirin eta Larribarren ez dago *ü*-rik (Irizar 2002: 22). EHHA-ko bilduman Bardozeke lekukoak inkestazaileari diotso berek “Xubean bezala” *ü* ahoskatzen dutela: *azerü* ‘azeria’, *negüz, büriü, kallatüia* ‘gazta mamia’, *gathüia & gathia, hümiak, ützen, ürrüxa* ‘emea’, *trüfatzen, sekhüla, bildü, ezkondü & ezkondu, izazü* ‘egin ezazu’, *ahaidetasün & -tasun, phartitü, akhidüra & -dura, libüria*. Halaz ere, etorkizuneko atzizkiari lotzean, Bardozen *-tu* atzizkia ez da Amikuzen bezainbat palatalizatzen: *sartuko, khenduko, ezautuko / hartiko*; aldiz, Amikuzen *-tiko* guztiz arrunta da: *tiatiko* ‘tiratuko’, *beotiko, ezautiko, beiratiko* (Arruta), *zilatiko, hautatiko* (Garruze), *khanbiatiko, hurrandiko, desbandatiko, khendiko* (Arboti); Zuberoako Domintxainen ere bildu dira honelako adibideak: *hurrendiko*. Oro har *-tuko* egiten da Nafarroa Beherean: *arrapatuko* (Izturitze), *khanbiatuko* (Larzabale), baina 1911n Trebitsch-ek honakoak bildu zituen Alduden: *hartiko, suketatiko* ‘sujetatuko’, *inganatiko / bilduko*. Lapurdiko Hazparnen ere bada inoiz *-tiko* (Epelde 2003: 290).

2.2. Sudurkaria ondoan duen *o* bokala *u* bihurtzen da Ipar Euskal Herrian, baina bereziki *n*-rekin gertatzen da hori; bilakabide honek ez du leku guztietan intentsitate bera eta Nafarroa Beherean Amikuzeko adibideak dira araua urrunen daramatenak. Arruntak dira Nafarroa Beherean *untsa, hun* ‘ona’, *untzi, undar, zumait* ‘zenbait’ adibideak, baina Amikuzeko bilakabidea sakonagoa da, Zuberoakoaren iduria zenbaitetan, hurrenaren adibideek salatzen dutenez: Arrutan *gizun* edo *undoti(k)* ‘ondotik’ bildu dira, Garruzen *undon* ‘ondoan’, *pantalun* edo *azkunka* ‘azkon bila’ ageri dira eta Arbotin *gizun & gizün, muzten* ‘mozten’ *ümen & umen* ‘omen’ edo *españula*; Bardozen ere bada *gizun*. Gainerateko Nafarroa Beherean ez dira honelakoak entzuten, *o*-dunak baitira oro har hitz edo aldaera horiek: *gizon* (Ezterenzubi, Landibarre), *pantalon* (Orzaize), *español* (Heleta), *omen* (Heleta, Armendaritze, Ezterenzubi, Landibarre), *moztu* (Armendaritze, Ezterenzubi, Landibarre), *azkon* (Armendaritze, Ezterenzubi, Landibarre), *ondora* (Bidarra)⁶. Lapurdin, barnealdetik Hazparnealdera *n* aitzineko *o > u* joera areagotzen da (Epelde 2003: 291).

2.3. Arestikoarekin loturik doa Nafarroa Behereko eskualdeak banatzen dituen hurrengo ezaugarria ere, *-oin / -uin & -uñ* bukaerari dagokiona; oro har esan daiteke Amikuzen *-uin & -uñ* bukaera nagusitzen dela eta salbues-

⁵ Hazparnen ere *ü* dugu, baina hitzak mugatzailea hartzean gertatzen den inflexioan: *antzüa, mirüa, bortüan*; aditzean ere bada Hazparnen: *düela*. Heletan ere bada *-üa* hitz bukaeran, gure adibideak guztiak honelakoak dira, baina egun *-ia* egiten omen dute (Irizar 2002: 392).

⁶ Bada, halaz ere, *unduan* ‘ondoan’ Alduden Trebitsch-ek 1911n bildurik.

penak salbuespen, gainerateko ibarretan *-oin* egiten dela: *sasuin*, *zuin*, *edozuñek* (Arruta); *patruñain* ‘patroiaren’, *puzuintzen* ‘pozoitzen’, *edozuñ*, *gapuin* ‘kapoia’, *kantuñean* ‘kantoian’, *arrazuna*, *dimuña* ‘lema’, *sasuñ*, *uñez* ‘oinez’, *uhuñez* ‘ohoinez’, *zuin*, *bezuña* ‘pezoia’ (Garruze); *pezunain* (Amorotze); *kantuñetan* & *khantuñ*, *hüñez*, *uhuñak*, *patruina*, *phezuñ* (Arboti). Ezterenzubiko *gaphoia* & *gaphoña*, Bidarraiko *patroinaren*, Aldudeko *pozoinak*, *kantoina* erabil ditzakegu beste saila aurkezteko; Lapurdiko Aturrialdean eta Makean ere nagusiki *-oin* egiten da; hona Bardozekeo adibideak: *sasoin*, *kantoin*, *phozoina*, *gaskoinetik*, *baloin*, *axkoinak*, *ohoinak*, *edredoinak* / *gaphuñak*. Landibarren *butuiñ* bildu da.

2.4. Nafarroa Beherearen iparraldean erabiltzen den bokal asimilazio bat bada, guztiz Zuberoakoaren eitea duena, bilakabide bera baita funtsean. Amikuzen eta Bardozen gertatzen da: *üngurütan*, *güsü* ‘gisua’ (Arruta), *nün-tzün* ‘ninduzun’, *lübürü* ‘liburua’, *üdüri*, *ülhüngia* ‘tximista’, *üngüria*, *güsü*, *barrükü* ‘ukuilua’ (Arboti); hona Aturrialdeko Bardozekeo adibideak: *zübü*, *bürü*, *bülüzgorrik*, *mürriü*, *erdoil pützü*, *nüxü* & *nüxün*, *zutzün*.

2.5. Muga adlatiboa ere banatzailea da Nafarroa Beherean, baina konplexua da eratzen duen irudia; denetan hedatuena *-(r)ano* aldaera da: Hazparnen, Baigorriin, Heletan, Izturitzen, Arnegin, Ezterenzubin, Gamarten, Larzabalen, Jutsin eta Garruzen bildu da. Ikusten denez, Nafarroa Beherearen mendebala, erdialdea eta hegoa harrapatzen du. Iparrean hedadura du Aturrialdean *-(r)aino* aldaerak, Mugerren eta Beskoitzen ageri baita; Bardozen zertxobait ageri da, baina ez da nagusitzen. Guztiz nagusitzen da aldaera hau hego-mendebalean, Baigorriko Orzaizen, Bidarrain, Alduden eta Baigorri herrian; baita, bestalde, Lapurdi barnealdean ere (Epelde 2003: 299). Itxurari dagokionez, bi erabilera hauetarik aski bereizten dira *d-* duten aldaerak, erdialdean eta franko iparrean erabiltzen direnak: Aturrialdeko Mugerren, Oztibarreko Jutsin eta Larzabalen nahiz Landibarren *-(r)adino* ageri zaigu; goiti Amikuzen honen iduria den *-(r)adio* dugu Arbotin eta Arrutan eta ezkerxeago, goiti, Bardozen, arestiko bi aldaeren gurutzaketa dirudien *-(r)aidio* erabiltzen da⁷.

Ikusten denez, iparrean eta erdiguneko Landibarre-Oztibarre alderdian aldaera *d-*dunak ez dira bakarrak, baina hori dute beren eremua, beheiti ez dira berriz ageri. Aldiz, *-(r)ano* & *-(r)aino* aldaerak, salbu Amikuzen, Nafarroa Behere guztian erabiltzen dira, Lapurdiko Aturrialdea eta Hazparne barne; *-(r)ano* dugu, esaterako, Milafrangan (Epelde 2003: 344).

2.6. Nafarroa Beherean Amikuze da **ezan* aditzetan pluraleko “(za)zki” berrikuntza analogikoa falta duen ibarra: adieraz ‘itzazu’ den “zkizu” erako adizkiak ageri dira Lapurdiko Bardozen, Makean, Hazparnen, Itsasun eta Nafarroa Behere gehienean, Amikuzen izan ezik: *sarratxu* ‘sar itzaxu’, *ekaatxu* ‘ekar itzaxu’, *ezaatxu zapetak* ‘ezar itzaxu oinetakoak’ adibideak bildu ditugu Oragarren. Zuberoan ere ez da ageri, ezta Lapurdiko barnealdeko Larroron ere. Baigorriin erabiltzen da, Alduden Lacombe 1911-12an bildu adibidea lekuko: *emak sakela atian urhia*, *berzian zilharra*; *uzkik bere aldiain eitera berziak*. Esan dezagun egun ere honelakoak erabiltzen direla Baigorriin.

⁷ Idazkietan bada *-radraino*, XIX. mende bukaeran J. F. Cerquand-ek Garaziko Buztintzen eta Oztibarreko Arhantsusin bildu ipuinetan ageri dena (1985: 50 eta 75). Erronkarin *-radraino* erabiltzen zen.

2.7. “Gu” pertsonaren morfema galtzen da Amikuzeko adizkietan; honela, *dik* adizkiak ‘dik’ eta ‘diagu’ adierak ditu, *dazko*-k ‘dizkio’ eta ‘dizkiogu’. Hona hemen adibide batzuk herrika: Arruta: *tu* ‘ditugu’; Garruze: *dik* ‘diagu’. Arboti: *dizi* ‘dizugu’, *dü* ‘dugu’. Oztibarrera orduko “gu” morfema beragertzen da: Jutsin *dakou* & *dazkou* ditugu.

2.8. Nafarroa Behereko iparraldean, osagarri pluralaren “z” morfema lehen pertsonako adizkietara iragan da analogiaz, “it” + “z” osagarri pluralen pleonasmoa sorturik: Amikuzen, Landibarren eta Aturrialdean badira adibideak: *diztut* ‘ditut’ (Oragarre, Mithiriña), *bitiztu* ‘baititu’ (Landibarre), baina Armendaritzen *bitituu* ‘baititugu’ eta Jutsin *bititu* ‘baititu’. Beskoitzen *bititut* & *bitiuzt*, *tuk* & *tuzk* ‘dituk’ edo *tuken* & *tuzken* ‘dituan’ adibideak bildu dira. Zuberoan Pagolan, Oihergin eta Larrainen bildu dira honelako aldaerak. Gauza bera ez badira ere, iduriak dira hurrengo berrikuntza analogikoak: *gintuzkan* ‘hik gu gintuan’ (Behauze); *gintuzkan* & *gintukan* (Gabadí); *ninduzten* ‘ninduten’ (Suhuskune, Bardoze); *dizten* ‘daitezten’ (Garruze), baina hondarreko aldaera hauek hedadura handiagoa dute: esaterako, Lekuinen *nintuzten* ‘ninduten’ erabiltzen da.

2.9. Zuberoan eta Zaraitzun *ote* partikula aditz trinkoaren edo laguntzailearen ondotik erabiltzen dute, Otsagabiko adibide honetan ageri den bezala: *Romanek erran zakon: eztaukizia etxea sutan ote? Ke anitz elkitzen xu* (J. Estornés Lasa 1985: 43). Nafarroa Beherean Amikuzen eta Oztibarren sumatu dugu era hau: *bená ezpitakit nik lamina horiek zer zien ote; ala gehiao sosen inaazteko jinak tzien ote Frantziaa?* (Oragarre); *murlantxa ari nuk ia anglez ardia denetz othe* (Arboti); *jinen da othe?* (Larزابale). Gainerateko ibarretan ez dugu joera hau sumatu: *eztakit nik hor Xuberoko aldian edo ote den “auña”;* *beldur niz eta ene senarrak eta ez ote duten eta ola erraten arteaendako* (Bidarraí), *hua ote den ez da segur* (Armendaritze), *dendari izarra bera da nik uste, edo eztakit dendari izarra ez ote den astiritan, astiritan eta goizetan artizarra* (Ezterenzubi); Oztibarreko hurraren adibidea ez da Larزابaleko arestikoaren kutsukoa: *beldur niz ez othe den obiielduko ‘goibelduko’* (Jutsi).

2.10. Amikuzen erabiltzen diren hitz eta aldaera lexiko batzuk badira, batek baino gehiagok Zuberoako edo Erronkariko oihartzuna baitakarkigute: *aidürü* & *aiduru* ‘zain’, *arraitzuli* ‘bigarren aldiz joan’, *ber* + izena egitura (*ber adina*), *bohor* ‘behorra’, *elge* ‘alor landua’, *ek(h)i*⁸ ‘eguzkia’, *eritarzün*, *ezari* ‘ezarri’, *gei* ‘asmoa izatea’ (*jingei dük*), *-gerren* ‘-garren’ atzizkia⁹, *gita* ‘ahatea’, *habo*¹⁰ ‘gehiago’, *hautse* ‘hautsi’, *jeste* ‘dastatu’, *kaloia* ‘kaiola’, *lobiro* & *lobiu* & *lohiru* ‘lobioa, samatsa’, *llolla* & *lolla* ‘urtarrila’, *nuiiz* ‘noiz’, *nur* ‘nor’, *ñago* ‘arbia’, *ohit nüzü* ‘oroitzen naiiz’, *oro*¹¹ & *oo*, *oski* ‘oinetakoak’, *prae* ‘txiroa, pobrea’, *pharte hun*¹² ‘agurtzeko formula’, *ümen* & *omen*, *zelü* & *zerü*, *zeñhü* ‘ezkila’, *zilintzau* & *xilintzau* ‘zintzilik’, *züin* ‘zein’. Beste batzuk Amikuzekoak edo inguruetaoak direla ematen du: *busta* ‘busti’ aditzaren aditzoina¹³, *jela*

⁸ Oztibarreko Jutsin bezala.

⁹ Bardozen bezala.

¹⁰ Oztibarreko Larزابalen bezala.

¹¹ Oztibarreko Larزابalen edo Heletan bezala.

¹² Oztibarren (*pharte on*) eta Zuberoako Urdiñarben, Sohütan eta Altzürükün ere erabiltzen da.

¹³ Xarles Videgainek Amikuzeko Garruzen (*ehadila busta*) eta Oztibarreko Jutsin (*busta ziten*) bildua; **bustatu* proposatu du M. Haase-k (1990: 413). Salaberri Ibarlakoak ere badakar *busta*.

‘alorra hersteke ataka’, *kaxkandel* & *kaxkandol* ‘sugandila’, *mind*¹⁴ ‘mendia’, *phintze*¹⁵ & *phentze*.

3. AMIKUZeko BESTE BEREIZGARRI BATZUK

Bereizgarri gehiago ere badira Amikuzen, baina ez dute arestikoez duten geografia-eremua harrapatzen: batzuk gehixeago eta beste batzuk gutiago hedatzen dira; badira bestela, adibide laxoagoak, arestikoen sistematikotasunik eta sakontasunik gramatikaren barrenean ez dutenak; sail honetara ekarri ditugun beste bilakabide batzuk, bestalde, sistematikoak izan arren, agerraldi maiztasun apalekoak dira; hamabost ezaugarri aurkeztuko ditugu.

3.1. Zuberoaren hurbiltasuna sentitzen da Amikuzen: Nafarroa Behere guztian *auzo* hitza erabiltzen da, diptongoa palatalizatu gabe eta Amikuzen ere bada *auzo* Garruzen edo Arbotin, baina *aizo* aldaera ere erabiltzen da ibar honetan, Amorotzen, Arrutan, Garruzen eta Arbotin, esaterako. Aturrialdeko Bardozen *auzo* erabiltzen da gehienik, baina *aizo*-ren adibide bat bederen ageri da.

3.2. Zuberoako emaitza bera ageri da Amikuzen bokal arteko dardarkari bakuna galdurik ageri duten adibide batzuetan: *zeua* ‘zerua’ (Arruta), *etxe-kandeia* (Arboti). Dardarkari bortitza behar zuenaren ordain bakuna agertzea ere litekeena da; hona Arbotiko adibideak: *ezari* ‘ezarri’ eta baita bestalde *ezai* & *ezaiko* ere; *ekhari* & *ekhariko* ‘ekarri’.

3.3. Izenordain zehaztugabe pertsonalean *nehor* / *nihor* & *ni(h)ur* aldaerak banatzen dute Nafarroa Beherea iparretik hegora, Amikuze eta Bardoze besteetarik bereizirik: Oragarren *nihuri*, Arrutan *nihok* & *nihuk*, Garruzen *niur* eta Arbotin *nihok* & *nehor* aldaera *i*-dunak ditugu datuetan; Bardozen ere bada *nihor*. Hortik peko alderdira aldaera *e*-dunak ageri dira: *ne(h)or* (Bidarra, Baigorri, Heleta, Izturitze, Aiherra, Ezterenzubi, Gamarte, Larzabale, Jutsi, Landibarre, Arboti eta Aturrialdeko Bardoze eta Beskoitze). Lekua adierazten duten izenordainetan, hedadura handiagoa dukete aldaera *i*-dunek: *nihun* (Irisarri, Larzabale, Oragarre, Garruze, Arboti eta Aturrialdeko Bardoze). Lapurdiko barnealdean *neor* dugu eta Hazparne aldean, berriz, *nehor*.

3.4. **Jaugin* aditzaren aldaera trinkoak Nafarroa Beherean bigarren pertsonan jokatzen dira nagusiki eta aginduak adierazteko soilik; Hazparnen eta Lapurdiko barnealdean ere badira *haugi*, *xauri* erako adizkiak eta baita Aturrialdean Bardozen eta Beskoitzen ere. Hego-mendebalean, Baigorri, esaterako, Aldudeko datuak ditugu, G. Lacombe 1911n bilduak: *haugi*, *xauri*, *txaurte* & *txaute*; guk Oragarren *aigü emeki* bildu dugu. EHHA-ko lekuko ezterenzubiar batek dio *daigün urthian* erako adizki hirugarren pertsonakoak, zuberotarrenak eta amikuztarrenak direla, baina Oztibarrera orduko ageri zaizkigu: *daugin urthian* bildu da Larzabalen; Amikuzeko Arbotin, berriz, *dain astian*.

¹⁴ Salaberri Ibarlakoak ez dakar *mendi* baizik.

¹⁵ Salaberri Ibarlakoak ez dakar *phentze* baizik.

3.5. Nafarroa Behereko gainerateko ibarretan ez bezala, Zuberoa ondoko Amikuzen “horra duzu” aldaera erabiltzen da etortze adieran: *kario horra duzu* (Amenduze-Unaso, Arboti).

3.6. Nor Nori Nork erako adizki pleonastikoak ageri dira Amikuzen: *zindataziün* ‘zenidan’, *zindaztatzüin* & *zindaztan* ‘zenizkidan’, *zindakozun* ‘zenion’, *zindakozien* & *zindakoten* ‘zenioten’ (Arruta); *zindataten* & *zindatazien* ‘zenidaten’ (Mithiriña); *zindauküten* & *zindauküzien* ‘zeniguten’ (Zohota). Ondoko Landibarren bada adibide bat: *zindazkiutzien* ‘zenizkiguten’.

3.7. Nor-Nori aditz sailean, Nafarroa Behereko ohiko *-t* izan beharrean, *-ta* da datiboko lehen pertsonaren morfema Amikuzen eta mendebal guztian: *zata* ‘zait’ & *zazta* ‘zaizkit’ Arrutan, Oragarren, Garruzen edo Zohotan ditugu, esaterako. Armendaritze, Iholdi eta Irisarrin gaindi jarraitzen du *zata-k zaut* lehiakide duen arren; beheiti, Orzaizen (*zeta* & *zata*) eta Bidarrain (*zeta* & *zaut*) jarraitzen du morfemak; Baigorri hegoaldean *zait* edo *zaut* egiten da. Landibarren *zaat* & *zaut* bildu dira eta Aturrialdean, Bardozen *zaut* / *zatak* & *zataxu* ditugu. Heletan, Donamartirin eta Aiherran *zaut* erabiltzen da.

3.8. Nor etikoan Amikuzeko *gituk* & *gitün* ohiko sailak badu kide analogiko bat: *gitzak* & *gitzan*. Garruzen *gützak* ‘gaituk’ erabiltzen da. Behauzen eta Gabadin iduri du erabiliagoa dela *gituk*, *-n* saila *gitzak*, *-n* saila baino.

3.9. Nafarroa Beherean ez da ezezaguna hiketa maskulinoan *t* eta *k* morfemak txandakatzea: 1911n Trebitsch-ek *diat* & *diak* ‘diat’ bildu zituen Alduden. Amikuzen nabarmena da joera hau. Nor Nork sailean *diat* & *diak* ‘diat’ erako txandaketa dugu Behauzen, esaterako, eta baita *dakoak* & *dakoat* ‘zioat’ ere. Garruzen ere *diak* ‘diat’ erabiltzen da. Gabadin *dezkeiat* & *dezteiat* ‘zizkieat’, *dezkeitzüt* & *dezteitzüt* erak ditugu. Oragarren *gindezteitzun* ‘genizkizun’ dena, Gabadin *gindezkeitzun* da.

3.10. Hiketatik analogiaz lerratu datekeen “-i-” morfema ageri da Amikuzen adizki arruntetan: *dauküte* & *daukiute* ‘digute’ bikoitza dugu Gabadin, etikoko *dauküie* & *daukiuie* ‘zigutek’ erak eraginik edo; *zaukiu* ‘zaigu’ adizkia ageri da Behauzen, sail etikoak kutsaturik edo. Donapaleun, *zauku* ‘zaigu’ adizkiak landa, *zakiu* ‘zaigu’ aldaera ere erabiltzen da. Hiketan hautazkoa da, gainera, “-i-” hori: *daukuk* & *daukiuk* ‘ziguk’ (Gabadi).

3.11. Datiboa “haiei” denean, bitasuna ageri da Amikuzen: iparreko herrietan *-ei* da morfema eta gainerakoetan *-e(e)*: *zei* ‘zaie’, *deit* ‘diet’ (Oragarre, Gabadi, Zohota); *zee* & *ze* ‘zaie’, *deet* ‘diet’ (Donapaleu), esaterako. Behauzen eta Zuberoako Domintxainen bi erak ageri dira: *nien* & *nein* ‘nien’. Era orokorra “ee” da Nafarroa Beherean: Ezterenzubín *zezkeen* ‘zizkien’ edo *dee* ‘die’ erabiltzen dira, Gamarten *zee* & *zie* ‘zaie’, Jutsin *zee*, Landibarren *dee*, Alduden *dee*, *zeen*, *zezteen* ‘zizkien’, Baigorriin *deet* & *deiet*.

3.12. Hirugarren pertsona pluraleko morfema datiboa lekuz alda daiteke Amikuzen aise; Bonapartek *deezet* ‘dizkiet’ bildu zuen, baina Koldo Artolak *dezteet*; bi aldaerak ditugu egun Donapaleun; ikertzaile donostiarrak dio *ee* horiek lekuz alda daitezkeela eta beti ez direla biak entzuten (Irizar 2002: 125).

3.13. Amikuzeko Arbotitik Lapurdiko Aturrialderaino bederen, bigarren pertsona pluraleko morfema datiboa *-te* da, besteetako *-e* izan beharrean: *zauzite*, *dauzitet*, *nautziten* (Arruta); *dakoziet* & *dakozitet*, *dakoxiet* & *dakoxitet*, *nakozien* & *nakoziten* (Beskoitze); *zaitzite* ‘zaizue’ (Lehuntze). Zubereaz ez da *-te* ageri, ezta Pagolan ere.

3.14. Xedezkoak eta kausalak sortzeko “amokatik (eta)” erako egitura ageri zaigu egungo datuetan Nafarroa Behereko iparraldean; Aturrialdeko Bardozen eta Amikuzeko Arruta-Arbotietan adibide batzuk ageri dira; XIX. mendeko bukaerako ipuin bildumetan bada era hau hegoalderago ere, J. F. Cerquand-ek Baigorriko Alduden eta Garaziko Izpuran bildurik (ikus 1985, 19 eta 33. or.). Hona Arrutako adibidea: *xarpanta amokatik, mürriak egiten due-laik züpor*. Arbotikoak dira hiru hauek: 1) *gio lüze hola üzten düte gioko pusaïn amokatik xutik direlaik arboliak*. 2) *eta gio han ereiten hazia, bipherra ta tomatia, aza re nahi bazen, gio kukutzen kharroiendako amokatik, estalgi bat iten lastoz*. 3) *eta hori amokatik etzain eror*. Bardozekoa da beste hau: *alimale basek hümia in eta lekhatzen ‘milikatzen’ dute untsa amokatik eta predaturrek ‘harrapariék’ eztezaten sendi, usaina joan dain*.

3.15. Mugatzailerik gabeko izen sintagmei dagokienez, euskara zaharren gordailu gertatu dira Zuberoako, Erronkariko, Zaraitzuko edo Aezkoako hizkerak; Nafarroa Behereko hizkeretan mugatzailea erabiltzen da, baina Amikuze alderdian salbuespenak ageri dira: *gaztek biltzen zizien tripot* (Arboti); Aturrialdeko Bardozen ere berdin: *bazen ordin aphez*⁶.

4. BAIGORRIKO BEREZITASUNAK

4.1. Nafarroa Behere guztian eta Lapurdi barnealdean *ai > ei* aldaketa gertatzen da diptongoan: *ezpaita / norbeit* (Bidarra), *zonbait / zonbeit* (Baigorri), *norbait / gizongei* (Orzaize), *emaiten / emeiten* (Irisarri), *artzeiner / zonbait* (Armendaritze), *seïndu, artzeinek / bezain* (Izturitze), *marrogai / noapeit* (Ezterenzubi), *artzain / seïndu* (Gamarte), *argizaitte / argizeite* (Larزابale), *zemeit / zonbait* (Landibarre), *bezain / nunbeit, senargei* (Garruze), *arrain / noapeit, ardigei* (Arboti) aski adibide dira ohartzeko. Halaz guztiz ere, bada beste bilakabide bat, *bai(t)* aurrizkian gertatua eta Nafarroa Behere guztira hedatzen dena, baina Baigorriin erabiltzen ez dena: *ezpaita, baitakit* (Bidarra), *baitzen* (Baigorri), *baitzen, beita* (Aldude) ditugu alde batetik. Gainerateko ibarretan *bi(t)* ageri da: *ezpitakit* (Izturitze), *biginiin* (Heleta), *ezpitude* (Armendaritze), *bitziren* (Ezterenzubi), *bitira* (Gamarte), *ezpitzzen* (Larزابale), *bigintien* (Jutsi), *bitzuten* (Landibarre), *bitakite* (Oragarre), *bitu* (Garruze), *binien* (Arboti). Aturrialdean ere halaxe da Bardozen eta Beskoitzen; Makean eta Hazparnen ere honela erabiltzen da, baina Lapurdi barnealdean ez (Epelde 2003: 291).

4.2. Euskal despalatalizazioaz aritzean ohikoa da Nafarroa Beherea aipatzea: *seinalea* (Baigorri), *botoila* (Aldude), *koinata* (Izturitze); dena ez da despalatalizazioa, ordea: *p(h)eña* ‘harkaitza’ (Bidarra, Baigorri, Aldude, Ezterenzubi, Jutsi, Garruze), *zigoña* ‘amiamokoa’ (Baigorri), *botella* (Landibarre) & *botolla* (Larزابale) & *butilla* (Arruta), *te(i)llatu* (Arnegi, Landibarre), *tella* (Landibarre), *martillu, butuiñ* (Landibarre). Palatalizazio maila ahula dago oro har *i* ondoko ozenetan, busti gabekoak dira gehienak, baina ezin esan daiteke ageri ez denik: *illabete* (Bidarra), *billurra* & *bilurra* ‘lokarria’ (Aldude), *zikiña* & *zikinetik* (Irisarri), *iliain* & *illiak* (Armendaritze), *dup(h)iña*

¹⁶ Lapurdiko Larresoron maila apalagoko erabilera da, baina *bada lan* erakoak erabiltzen dira (Epelde 2003: 216).

(Gamarte, Larzabale), *langillia* (Jutsi), *illobak* (Landibarre), *kadiña*, *apiilla*, *uriñean* & *urinean*, *burdiñaz* (Garruze), *aphiillako* & *aphilain*, *burdiñaz* (Arboti). Ozena *i*-ren ondokoa denean, palatalizazioaren maila aise areagotzen da, baina *ñ*abardurak egin behar dira, ez baita palatalizazio maila bera Baigorri eta Armendaritzen edota Ezterenzubin, Jutsin, Landibarren eta Arrutan. Zuberoari hurrengo dauden ibarretan eta Lapurdiko Aturrialdean bustidura arruntagoa da. Adibideak ikus daitezke:

Baigorri: *gainenik*, *einik*, *bainan*, *oilar*, *baino*, *arraina*, *ganderailuz*, *buruileko*, *phezoina*, *edergailu*, *andoila* ‘frantses andouille’, *oilaskoak*, *gaztenak* ‘gaztainak’, nahiz badiren *karruña* ‘karroina, izotza’ edo *ollo* ere. Orzaize: *oinez*, *uztailean*. Armendaritzeko adibideetan ere bustidura guti ageri da: *ekhainian*, *onkailu* ‘ongarria’, *zailak*, *phantzoila* ‘sabel handia’, baina *gainian* & *gaiñean*, *oiloa* & *oilloari*. Lapurdin, Hazparne eta Makea alderdi horretan ere, busti gabeko aldaerak erabiltzen dira gehienik: *arroila*, *sailian*, *larraina*, *teila*, *pezoinaz*, *andoila*, *botoilak* / *iluñabarra*, *billuia* ‘bildua’, *erregiña* (Makea); *andoila*, *oilo*, *teillatu*, *gainian*, *seila*, *baatzezeina* (Hazparne).

Ekialderago gauzak bestela dira: cf. Camino (1987: 338) eta Zuazo (2003: 153); Garazin aldaera busti gehiago dago Nafarroa Behereko mendebalean baino: *mandozaña*, *xehella* ‘ataka’, *phantzollian*, *gandeallu*, *taillu*, *olloak*, *ollasko*, *Doñanen* ‘Doni(b)anen’, *eskuñ*, *gaztaña*, *sasoña* / *patroina*, *ostaila*, *ohoina*, *sailentan*, *oiloa*, *itxainain* ‘izainaren’, *oinez*, *gainian*, *gaztaina*, *arraina* (Ezterenzubi). Oztibarreko Jutsin ere bada aski bustidura maila: *pipatzaillek*, *itxaiña*, *garratoña* ‘arratoia’, *ollo*, *eskalapuña*, *gaztaña*, *arrolla*, *zerrallua*, *ostalla* / *gainian*, *ohoina*, *dailu*, *sasoina*. Amikuzen ere berdin, Arrutako datuak ikusirik: *gaiñean*, *arraña*, *ollo*, *sasoñako*, *azkoña* ‘azkona’, *garratoña*, *artzañek*, *kharruña*, *bezuña*, *hunkalla* ‘ongailua, ongarria’, *dallu*, *esnezañak*, *arrulla* ‘arroila’, *andulla* ‘frantses andouille’ / *arraina*, *gainian*, *teila*, *oilanda*. Aturrialdean ekialdeko hizkera hauekin batera doa Bardoze, nahiz Beskoitzen, palatalizazio maila apalagoa dagoela dirudien. Lapurdiko barnealdea palatalizatorik gabeko eremua da (Epelde 2003: 294).

Oro har esan liteke Baigorriko eta Arberoa-Iholdiko alderdia direla bustidura gutien dutenak eta Lapurdiko ekialdeko erara gehien hurbiltzen direnak; ekialderat, Garazi, Oztibarre, Landibarre, Amikuze eta Bardoze palatalizatzailago ditugu. Baigorri hurrengo den Baztangoiza ere, Azpilkueta, Erratzu, Urritzate, Amaiur, Arizkun eta Aritzakun, horixe da bustidura gutien duen eremua Baztanen.

4.3. Esan ohi da *bertze*, *bortz*, *ortzegun* hitzen sailean “rtz” kontsonante taldea duten aldaerak Lapurdikoak direla eta “st” taldea dutenak Nafarroa Behereari dagozkiola. Ez da gezurra guztiz, baina beste anitz bezala, baiez-tapen hau *ñ*abarduren beharrean dago: alde batetik, herri berean *bost* & *bortz* (Bidarra) bezalako txandaketak aurki daitezkeelako eta bestetik, litekeena delako herri batean *beste*, *bestenez*, *honbeste*, *bosteun* formekin batean *ortzegun* aldaera erabiltzea (Jutsi). Bestalde, litekeena da hitz bat herrialde guztian kontsonante talde beraren bidez erabiltzea: *hertze* & *herze* dugu Nafarroa Behere guztian, ez dugu ***heste* aurkitu. Berebat, *urzo* & *ur(t)xo* erabiltzen da, ez ***uso*. Horrezaz landa, kontsonante taldeek bilakabideak jasan ditzakete: Nafarroa Beherearen ondoan, *bestze* dugu Makean eta *beze* Bardozen eta Beskoitzen. Aldakortasunaren adibide Bidarraiko *bertze*, *berze* eta *beste* ditugu.

Egoera laburbiltzea ez da erraza: oro har, “st” taldea Nafarroa Beherean nagusi dela esan daiteke, bereziki ekialderat, Zuberoarat goazen heinean: Amikuzeko Garruzen, esaterako, honakoak ditugu: *beste*, *besteñez*, *bost*, *ostial*, *osteun* eta arestian aipaturikako *urzo* eta (*h*)*ertze*; Oragarren *bost*, *hunenbeste*, *hanbeste*, *beste*, *besteñean* bildu ditugu; halaz ere, Arbotin, *ostiale* eta *osteiin* aldaerekin batean *ortziale* aldaeraren adibide bat bildu da. Arberoa-Iholdi alderdian ere “st” nagusitzen da; Garazin badirudi biak ditugula, bereziki hegoaldean: Arnegin *beste*, *hainbeste*, *bestenaz*, *bestalde* / *bertzorduz*, *bertze* aldaerak ditugu eta Ezterenzubin *beste*, *bost*, *hunenbeste*, *bestenez* / *ortziale*, *ortzegun*. Garaziko iparralderat, Gamarten “st” nagusitzen da eta hori bera dugu Oztibarreko Larzabalen, baina ibar bereko Jutsin, berriz ere, nagusi den “st” taldearekin batean *ortzegun* ageri da; Landibarren ere “st” nagusi izan arren, *ortziale* & *ostiale* txandaketa ageri da datuetan. Txandaketa dugu Hazparnen eta Bardozen ere, Lapurdiko barnealdean bezala, baina Beskoitzen *bertze* & *beze* saila dago nagusi. Baigorrialdean, berriz, badirudi “rtz” taldea gehiago erabiltzen dela “st” baino, baina hondarreko talde honen adibideak ere badira: *bost*, *bestenez* / *bertze* (Orzaize); gauza jakina da Baztan, Erroibar eta Esteribar alderdian “rtz” taldea erabiltzen dela.

4.4. Bildu ditugun datuetan, Baigorri eta Lapurdira hurbil dagoen Armendaritze dira lekuzko adizlagunetan “nt” kontsonante taldea ez, “nd” dutenak; *handik* forma dugu Baigorriin, *nundik* eta *handik* Armendaritzen; Hazparnen eta Makean ere ez da “nt” taldea ageri, ezta Lapurdi barnealdean ere¹⁷. Nafarroa Behereko Amikuzen, Oztibarren, Landibarren, Garazin eta Irisarri-Izturitze alderdian, “nt” taldea duten aldaerak erabiltzen dira: (*h*)*antik* (Irisarri, Izturitze, Ezterenzubi, Gamarte, Larzabale, Landibarre, Arruta, Garruze, Arboti eta Aturrialdeko Bardoze eta Beskoitze). Badira *he(m)entik* & *hentik*, *nuntik*, *niuntik* adibideak ere, Nafarroa Beherean barreiaturik. Destinatiboko atzizkian *-entako* aldaera Nafarroa Beherearen erdialdean ageri da guk bildu datuetan: Izturitzen, Larzabalen eta Jutsin. Horrezaz landa, “nk” kontsonante taldea aipa daiteke, Aturrialdeko Beskoitzeko *eunko* ‘egungo’ eta *hanko* adibideetan edo Jutsiko *hemenko*-n duguna; azkenik, partizipioetako *-ntu* kontsonante taldea aurkez daiteke: *huntia* & *hundia* ‘ondua’ (Landibarre), *lanthiak* (Jutsi) eta Aturrialdean *lanthu* (Beskoitze).

4.5. Izenaren morfologiaren barrenean soziatiboko atzizki osatuak halakoxe banaketa finkatzen du Nafarroa Beherean: ekialderat joanik *-kilan*-en agerraldien maiztasuna goiti doa: guk bildu datuetan, Larzabalen, Landibarren eta Arbotin bederen, erabiliagoa da *-kin* soilagoa baino. Arberoa-Iholdi alderdian eta Garazin ere erabiltzen da. Lapurdin ere ageri da: Irantzu Epeldek dioenez (2003: 298), Larresoro, Ezpeleta, Zuraide, Itsasu, Hazparne eta Makea alderdi horretan erabiltzen da. Aldiz, Baigorriin bildu erabilera guztiak *-kin* dira hiru salbuespen izan ezik; berrikuntza baten itzaltzearen aitzinean gaude, egun ez baita emankorra *-kilan* Baigorriin, bakandu da, garai bateko zaharrek aise gehiago erabiltzen omen zuten¹⁸.

¹⁷ Uztaritzeko dotrinako *nuntic* eta Larresoroko *nuntinaitik* salbuespentzat jo ditu Irantzu Epeldek (2003: 105).

¹⁸ 1948an Urepelen aita Barandiaranek *heltzeakilan* bildu zuen Xalbador bertsolariarengandik; guk Orzaizen *gurekilan fini da erlisionea ene iduriko* bildu dugu eta EHHA-n, Bidarrain *aakilan* ‘harekin’ adibidea ageri da.

4.6. Ohiko *-ra(t)* atzizkiaz landa, *-la(t)* ere badago adlatiboan Nafarroa Beherean eta beraren hedaduraz badira egin beharreko ñabardurak: arestikotan bezala, Baigorri da ageri ez den eremu bakarra: Lapurdin Uztaritzen, Jatsun, Haltsun, Kanbon eta Itsasun entzun daiteke (Epelde 2003: 102), baina Baigorri ez da ageri Bidarraiko, Aldudeko edo Baigorri herriko gure datuetan. Aldiz, Arberoa-Iholdi alderdian, Lapurdiko Aturrialdean, Amikuzen, Oztibarren, Landibarren eta Garazin erabiltzen da; Landibarreko adibideak ditugu honakoak: *elizalat*, *Lurdelat* ‘Lourdes hirirat’, *barrikalat*, *elgarretalat*, *hortalat*, *kuzinala*, *gisala*.

4.7. Ezaguna da ekialdeko euskalkietan *-xe* atzizki txikigarriak *-t* hartu ohi duela; harako Erronkariko *kolaxet* aldaera datorkigu gogora; baliteke *-xetan* > *-xet* + *an* berranalisisa gertatu izana. Nafarroa Behere gehiengan ageri da eta modu eta leku adizlagunetan *-xet* & *-xetan* dugu. Salbuespena, beste behin, Baigorri eskualdea da; bertan ez dago, hondarreko herskari hori gabeko *hementxe* eta *hantxe* bildu dira Baigorri herrian; Baztanen ere ez da erabiltzen. Gainerateko Nafarroa Beherean, *holaxet* & *holaxetan* eta *hortxet* & *hantxet* edo *he(me)ntxetan*¹⁹, *hortxetan*, *hantxetan* ditugu. Amikuzen, Oztibarren, Landibarren eta Garazin *-xetan* ageri da: *holaxetan*, *hementxetan*, *hortxetan* eta *hantxetan*. Bestalde, Armendaritzen, Gamarten eta Landibarren *holaxet* bildu da eta guk Heletan *hortxetan*. Lapurdialdean, Bardozeke datuetan ez zaigu agertu eta Beskoitzen ez omen da ***hantxe*, ***hortxe* erarik ibiltzen (Duhau 2003: 268); Makean, berriz, *hantxen* era ageri da gure datuetan.

4.8. Inesibo zaharraren adibideak ausarki ageri zaizkigu Nafarroa Beherean eta Lapurdiko Aturrialdean: *ihizin* (Aldude, Baigorri, Armendaritze, Izturitze, Ezterenzubi, Gamarte, Larzabale, Arruta, Bardoze, Beskoitze), *iraulden* (Baigorri, Arnegi, Gamarte) & *ialden* (Beskoitze), *(h)aitzurren* (Heleta, Larzabale, Jutsi, Beskoitze), *gañen* (Gamarte, Garruze), *barnen* (Garruze), *goizen* (Garruze). Bada, halaz ere, agertze maiztasun handikoa den hitz baten aldaera bat, norberaren etxea adierazteko, Nafarroa Beherean guztiz hedaturik dagoena, baina Baigorri falta dena: Baigorri herrian *gure etxean* edo *etxean egoiten duk* adibideak bildu dira eta guk Orzaizen *ogia egiten ginin etxean zortzi uziz*, *zortzitik* adibidea; jokabide berritzailea izan daiteke hau; Baztanen ere ez da erabiltzen “etxen”. Aldiz, Arberoa-Iholdi alderdian, Garazin, Oztibarren, Landibarren, Amikuzen eta Aturrialdeko Bardozen, *etxen* edo *gue etxen* adibideak ageri zaizkigu. Badira bestelakoak ere: Garruzen *gue etxian*, Landibarren *gure etxean*. Beskoitzen *etxin* erabiltzen dela dio H. Duhauk. Lapurdiko barnealdean nahiz Hazparne aldean *etxen* era ibiltzen da; Zuraidekoa da *gue etxen eoitzen tzien* (Epelde 2003: 342).

4.9. Bilatzeko ekintza adierazten duten atzizkietan, bada bat hego-ekialdean, erdialdean eta iparrean ageri dena, baina Baigorri erabiltzen ez dena, *-ka* atzizkia da: *arrainka* (Armendaritze), *ulika* (Ezterenzubi), *arrainkan* (Gamarte), *behika joan*; *bildotska joan*; *zuazi hurka* (Larzabale), *lapinka* (Jutsi), *bellharka* (Landibarre, Oragarre, Arruta), *azkunka*, *urka* (Garruze), *sathorka*, *otheka* (Arboti). Lapurdiko Aturrialdean ere bada: *johan zen onddoka* (Bardoze). Baigorri hedadura handiko *-keta(n)* atzizkia ageri zaigu: *otheketa* (Urepele), *onddoketan izan duk* (Baigorri), *zakuketa*, *lastoketa* (Orzaize); era-

¹⁹ Beharbada *hebentxetan* > *bentxetan*.

bilera goiti hedatzen da: *urketan* (Izturitze), *hail keta* (Bardoze). Baztanen ere bada, baina atzizki direktiboa lotzen zaio: *urketara*, *esneketara*, *onddoketara*. Lapurdi barnealdean ere bada: Haltsun *ur keta* bildu da (Epelde 2003: 339).

4.10. Aditz nagusiaren morfologian, aspektua adierazteko *-i* atzizkia hartzen duten aditzek, euskara zaharrean edota Zuberoan bezala, *-ten* egiten dute Nafarroa Behereko iparrean eta ekialdean; hego-mendebalean *-tzen* berriagoa ageri da beti Bidarraiko, Aldudeko eta Baigorriko datuetan. Amikuzen *-ten* & *-tzen*, biak ageri dira, Garruzeko adibideak lekuko: *ezarten*, *erorten* / *ezartzzen*, *ibiltzen*, *ekartzzen*. Oztibarren eta Garazin nagusi da *-tzen*, baina badira *-ten*-en adibideak; mendebalera goiti joan behar da *-ten* berraurkitzeko: Arberoa-Iholdi alderdian *ebilten* dugu Heletan, baina *ezartzzen* bezalakoen ondoan. Iparrera, Lapurdiko Aturrialdera inguratu behar da *-ten* indarrean aurkitzeko: *ekarten*, *iiltzen* ‘ibiltzen’, *jalten* ‘jalitzen’, *eortzen* (Beskoitze).

4.11. Nafarroa Behereko euskara aztertzean, garrantzi berezia aitortu zaie tratamenduei, zuketari eta xuketari bereziki, alokutiboak eta sistematikoak izanik, solasaldiko adizki gehienetan uzten duten kutsuagatik; gai honetan, berriz ere, bi salbuespen nagusiak Baigorri eta Amikuzen ageri zaizkigu. Lehen ibar horretan ez da ez zuketarik ez xuketarik: Berrogaingo lepoa gainditu behar da tratamendua Garazi aldean aurkitzeko; Amikuzen ere, oro har mintzatuz, xuketarik ez da erabiltzen.

Bonapartek behe-nafarrera mendebal/ekialde banatzeko zuketa eta xuketa alokutiboa franko baliatu zituen, mendebalekoan ez baita bi erabileretarik bat bera ere egiten; ekialdekoan, zuketa eremu guztietan aurkitu zuen, Irisarri, Heleta, Donostiri, Izturitze eta Aiherran izan ezik; ezaguna da, bestalde, zuketak Zuberoan indar handia duela. Xuketa ere eremu gehienetakoa zen Nafarroa Beherean Bonaparteren garaian, baina Amikuzen ez zen egiten.

Egun ditugun datuak ere fidagarriak dira (Alberdi 1996: 306-314) eta zuketak Nafarroa Beherean dituen soilguneak, Aiherra-Heleta-Irisarri alderdia (baina Mehainen eta Armendaritzen egiten da) eta Garaziko Uharte eta Donibane lirake, Baigorri gainera; dena den, adinez gazte direnek zuketan ez egitea aski arrunta da egun Nafarroa Beherean eta Lapurdiko Aturrialdean. Xuketak, berriz, Nafarroa Behere guztia harrapatzen du Baigorri eta Amikuzen izan ezik, nahiz Amorotzen eta Gamuen xuketa alokutiboa entzun daitekeen helduak haurrei aritzean. Lapurdiko Aturrialdean ere bada xuketa; aldiz, Lapurdiko Hazparnetik Nafarroa Behereko Aiherrarat goazela, xuketaren eremura igarotzen gara; Lapurdiko Lekuinen ere xuketa erabiltzen da (Irizar 2002: 448). EHHA-ko inkesten artean badira zuketan eginak, Armendaritzekoa, Larzabalekoa, Landibarrekkoa, Garruzekoa, Arbotikoa...

4.12. Nor aditz saileko iraganean “nd” ageri da adizkietan Nafarroa Behereko erdialdean, ekialde guztian eta iparrean, Lapurdiko Aturrialderaino: *ginden* ‘ginen’, *zinden* ‘zinen’ (Iholdi, Armendaritze, Mehaine), *gindelaik* (Ezterenzubi), *nindelaik*, *ginden* (Gamarte), *gindelaik* (Larzabale, Arboti); Arrutan, Oragarren eta Mithiriñan “nd” & “nt” dugu: *ginden* & *ginten*. Bardozen ere sail hau dugu: *xinden*, *ginden*. Berriz ere, Nafarroa Beherean orokorra dirudien joeratik kanpo dakusagu Baigorri ibarra eta Baztanen ere ez da erabiltzen. Zuberoako Nor aditz sailean “nd” taldea soilik bigarren pertsonan ageri da: *zinde(en)* & *zindien* ‘zineten’.

Zuketak Nafarroa Beherean duen eremu bera du ezaugarri honek, beraz, Nafarroa Beherean; elkar hizketetan “nd” darabilen zuketa usu erabilia baita,

“d” hori analogiaz Nor aditz sailera iragan datekeela pentsa liteke²⁰: hain zuzen ere, zuketan & xuketan egiten ez den ibarrean falta da Nor aditz sailean “nd” taldea, baina hori “nd” taldea berritza hartzea litzateke. Euskal Herriko mendebalean ez da ageri “nd” hori eta “izan” aditzaren bilakabide historikoaz jardun dutenek berrikuntzat dituzte *ginden*, *zinden*... era horiek; halaz ere, elkarrengandik urrun dauden eremu ugaritan ageri da “nd” taldea: *zinden*, *ginden* adizkiek Euskal Herrian hedadura handia dute; cf. Zuazo (1989: 641).

4.13. Hiketan “e”-ra aldatzen da hirugarren pertsona datiboko morfema: *dakot* ‘diot’, baina *zakeat* & *zakenat* ‘zioat & zionat’ (Bidarra), *dazkou* ‘dizkiogu’, baina *dazkeauk* & *dazkenaun* (Orzaize), *ginakon*, baina *ginakean* ‘genioan’ & *ginakenan* ‘genionan’ (Baigorri), *dakot*, baina *diakeat* ‘zioat’ (Aldude), *dakot*, baina *dakeat* ‘zioat’ (Urepele).

4.14. Berrikuntza aipagarria bada Nor Nori Nork edo Nor Nori aditz sailetan: *auzk* / *zkau* lehia ageri da *dauzkigu* / *dazkau* ‘dizkigu’ adizkietan; lehenak iparrekoak dira, Bidarra, Orzaize, Baigorri edo Bankakoak eta besteak hegoaldekoak: Aldude, Urepele eta Kintoakoak. Alduden, esaterako, *zazkau* ‘zaizkigu’ bildu da.

4.15. Bonaparteren garaian bezala, Nor Nork sailaren ordain, Nor Nori Nork adizkiak erabiltzen dira batzuetan Baigorri herrian: *nu* adizkiak gainera *daat* ‘dit’ ere erabiltzen da eta *nute-z* gain, baita *daate* ere ‘naute’ adierazteko. Ezezaguna eta ezohikoa da joera hau Ipar Euskal Herriko euskaran, baina ohikoa da Baztanen, Erroibarren eta Esteribarren.

4.16. Morfemekin ez, ahoskerarekin dute zerikustekoa Baigorri herriko *zinazkidaan* & *zinazkidahan* ‘zenizkidan’ edo *deat* & *dehat* ‘diat’ nahiz *deanat* & *dehanat* ‘dinat’ motako hasperentzeak eta herri gehiagotakoa den *dakou* > *dakoo* ‘diogu’ asimilazioak (Arrosa, Baigorri, Banka, Aldude, Kintoa).

5. MENDEBALEKO EZAUGARRIAK

5.1. Lapurdira hurbil den Nafarroa Beherearen ipar-mendebalean, hiru bokal elkarturik dauden diptongoan, *i* osagaia galtzen da: *doa* ‘doia’, *ihaurgea* ‘inaurkina’, *anea* ‘anaia’, *emaztegea* edo *gizongea* (Izturitze); ondoko Hazparnen (*ezteak* ‘ezteiak’) eta Makean (*zerritea*, *urdandea*, *oilatea*, *bizitea*²¹) ere bada bilakabide hau²².

5.2. Edute genitiboko atzizkiak bokalarteko dardarkari bakuna galtzen baitu, hiatoak eta diptongoak sortzen dira hitzean: Nafarroa Behereko mendebaleko hizkeretan *-aan* da eredu eta ekialderat *-ain* diptongoa ageri zaigu; Armendaritzek bi aldeetara jorik edo, *-ain* egiten du. Bildu diren datuetan, Bidarraik eta Aturrialdeko Bardozek eta Beskoitzek nagusiki *-aan* egiten dute; Izturitzen, berriz, *-aan* nahiz *-ain*, biak ageri dira datuetan. Gaineratekoan *-ain* diptongoa dugu: Alduden, Baigorri, Irisarrin, Garazin, Oztibarren, Landibarren eta Amikuzen. Lapurdiko barnealdean *-aan* nahiz *-ain* erabil-

²⁰ Non eta ez den iragan *gindauden*, *ginduen* edo honelakoren batetik.

²¹ Mugatzailerik gabe *bizitei* erabiltzen da.

²² EHHA-ko berriemaile bastidarrak (aita hazpandarra zuen eta ama bastidar erdalduna) honako adibideak eman zituen: *oilotean* ‘oilategian’, *zezengea* ‘zezengai’, *behorte* ‘behortegia’, *jaurea* ‘jauregia’, *anea*, *aoztean* ‘aroztegi’, *gasnatea*, *aphezgea*.

tzen dira (Epelde 2003: 292-93), baina Hazparnen, Makean eta Lekornen *-aan*.

Egoera iduria da aditzen etorkizuneko atzizkian gertatzen dena. Lehenik aitortu behar da bokalarteko sudurkaria ez dela beti galtzen: *joanen, egonen / errain, izain* adibideak ditugu Irisarrin, *ukanen / ukhain* Baigorri eta *jinen / jien* Gamarten nahiz Landibarren. Halarik ere, galtzen denean, edute geniti-boaren bilakabideen eitea du etorkizuneko atzizki honek ere. Bidarrain *errain* adibidea dugu eta antzera Aturrialdeko Bardozen eta Beskoitzen ere. Izturitzen bi erak ditugu: *ukhaan, jooan / errain, jain*. Armendaritzek ere eza-gun du erdibidean dela: *errain / jooan / jain, izain, joain*. Ekialderat *-ain* diptongoa duen aldaera nagusitzen da Alduden, Baigorri, Irisarrin, Garazin, Oztibarren, Landibarren eta Amikuzen. Lapurdiko barnealdean ere *-ain* erabiltzen da.

5.3. Euskal Herriko erdialdeko hizkeretan *z-* erabili ohi da alokutiboko oraineko adizkietan, bai era trinkoan, bai Nor Nori Nork adizkietan; Lapurdiko Uztaritzen, esaterako, *zioiat & zionat* ‘zioat / zionat’ entzun daiteke eta Hazparnealdean gaindi Nafarroa Behereko Aiherra eta Izturitzeraino iristen da joera hori; oro har, ordea, Arberoa-Iholdi alderdian *d-* erabiltzen da. Baigorri ere, Bidarrain izan ezik, *d-* ageri zaigu, hego-mendebaletik hasirik gainera: *diaun* ‘zagon’ (Aldude), *diakok* ‘ziok’, *diailak* ‘zebilek’ (Baigorri)²³. Joera honek Garazin, Oztibarren eta Amikuzen du jarraipena eta baita Lapurdiko Aturrialdeko Bardozen eta Beskoitzen ere. Hona Arbotiko adibideak: *eztakit* ‘ez zakiat’, *badoazu* ‘badoa zuketan’, *badoatzak* ‘bazoazak’, *dakok* ‘ziok’.

5.4. Oihartzun zenbait dela bide, datiboaren morfema duten iraganeko adizkietara “n” bat hedatu da Nafarroa Behereko mendebalean eta Lapurdiko ekialdean. Izturitzen, esaterako, *za(u)ntan* ‘zidan’ eta *zankon* ‘zion’ ditugu eta Aiherran Nor Nori eta Nor Nori Nork aditz sailetan ageri da: *zankon* ‘zitzaion’, *ginankon* ‘genion’. Irisarrin, ordea, “n” gabeko *zaukun* erabiltzen da, eta oro har, Iholdin, Armendaritzen eta Mehainen, esaterako, *zakon* ‘zion’, “n” gabekoa erabiltzen da; halarik ere, Heletan eta Armendaritzen bada “n” horren arrasto zenbait: *zankon* ‘zitzaion’. Makean, Hazparnen eta Aturrialdeko Bardozen, aldaera “n”-dunak ageri zaizkigu; Beskoitzen Nor Nori aditz sailari dagozkio, Nor Nori Nork aditz sailean Beskoitzen ez da “n”-rik ageri: *zakoian* ‘zioan’, *zautaian* ‘zidaan’. Bilakabide hau Lapurdi barnealdean ere gertatzen da: Uztaritzen *zauntan* ‘zidan’ bildu da eta Milafranga, Larresoro eta Itsasu aldean ere ageri da “n” hori.

5.5. Oraineko Nor Nori aditz sailean subjektua hirugarren pertsona denean, *z-* izan ohi da aditz laguntzailearen lehen kontsonantea, baina hori ez da horrela euskalki guztietan; esaterako, Bizkaiko mendebalean, Mungialdean, *dako* ‘zaio’ gisako adizkiak erabiltzen dira. Nafarroa Beherean ere bada joera hori mendebalean. Izturitzen *dako* ‘zaio’ dugu (Irizar 2002: 469) eta Aiherran ere *d-* da (Larre 1980: 68). Lapurdiko Aturrialdean Bardozen eta Beskoitzen, *z-* da Nor Nori aditz saileko morfema subjektua hirugarren pertsona denean eta horrela da Arberoa Heleta, Donostiri alderdian ere; aldiz,

²³ “Jakin” aditzean badira *z-*dunak ere: Larzabalen *eztakit / bazekiat & bazakiat* ditugu eta Luzaiden *baziakixut*.

Lapurdikoko Lekuinen, Lekornen eta Hazparden *d-* & *z-*, bi erak erabiltzen dira; Lekuinekoak dira *zaut* & *daut* ‘zait’, *zako* & *dako* ‘zaio’...

5.6. Lapurdin bezala, “haiei”-ren morfema “ote” da Nafarroa Behereko mendebalean: Bidarrain: *zaiote* ‘zaie’; Aiherra²⁴: *zakote* ‘zaie’; Aiherra eta Lekuine: *dakote* ‘die’; jarraipena du morfema honek Lapurdiko herrietan: Bardoze: *dakotet* ‘diet’, *zakotelaik* ‘zaielarik’; Beskoitze: *zakote*, *dakotet*, *dakote*, *dakotegu*; Hazparden *zakote* dugu eta Makean *zakote* & *zakoie*; Lapurdi barnealdean *zakote* & *zaiote* erabiltzen da. Aldiz, honakoak ditugu Nafarroa Behereko mugako beste herrietan: Izturitzen *zee* ‘zaie’ eta Armendaritzen *ze*. Nor Nori Nork sailean, berriz, Donamartirin, Heletan, Irisarrin, Iholdin, Armendaritzen eta Mehainen *dee* ‘die’ ageri da.

5.7. Lapurdin ohikoa den *dire* adizkia ageri zaigu Nafarroa Behereko mendebalean: Baigorriko Bidarrain *dia* & *dire* ageri da, baina guk Orzaizen *dira* bildu dugu; Arberoa herri guztietan *dia* erabiltzen den arren, Izturitzen *dire* bildu da. Lapurdin, Hazparden eta Makean *die* dugu; Beskoitzen *zie* ‘zara’, *xie* ‘xara’, *gie* eta *die* dakartza Duhauk eta Bardozen *zire*, *arribatzen* *gie* eta *gaixto dire* bildu dira; Irizarrek Bardozen *die* & *dia* dakartza.

5.8. Nafarroa Behereko mendebalean palatalizazioa gertatzen da Nor Nori Nork aditz sailean osagarria plurala delarik: *dait* ‘dizkit’; Aiherran aldaera hau dugu, Bonapartek *dauzkit* bildu bazuen ere. Donamartirin egun *zaizkuten* & *zauzkuten* ‘zizkiguten’ pareta dugu eta egun *dauzkitzut* dena, Bonaparteren garaian *daitzut* zen; Heletan ere *dait* ‘dizkit’ dakar printzeak, egun *dazta* esaten den arren. Lapurdiko Beskoitzen jarraipena du bilakabideak, baina singularrean ere ibiltzen da: *daitzut* & *dautzut* ‘dauzut’, *daitzu* ‘dizu’, *daitxut* ‘dauxut’. Halaz ere, Aturrialdean berean Bardozen *daut* erabiltzen da eta hori bera dago Hazparden eta Makean, nahiz Hazparden *i* ere erabiltzen den Nor Nori Nork eta Nor Nori aditz sailetako pluraleko adizkietan. Lapurdiko barnealdean datibo pluralean ez da *i* ageri (Epelde 2003: 308).

5.9. Lapurdin eta Bidasoaldean bezala, aldaera datibodunaren ordain, Nor Nork aditz saila bildu da Bidarraiko adibide batean: *erran zaitut* ‘esan dizut’. Adibide hau salbuespena izan liteke, ezaugarria ez baita erabiltzen ez Lapurdiko ekialdean ez barnealdean (Epelde 2003: 307); Ezpeletatik mendebalera indar handia du jokabide honek.

6. NAFARROA BEHEREA IPAR / HEGO BANATZEN DUTENAK

6.1. Hiketa alokutiboko morfema etikoa adizkiaren bukaeran agertzea ez da Nafarroa Beherean bakarrik gertatzen den gauza, baina herrialde honetan banaketa finkatzen du iparretik hegorat: hegoaldeko eta erdialdeko eremu batzuetan morfema ez da bukaeran ageri, Baigorriin, Garazin (Suhuskune salbu), Oztibarren eta Landibarren ez bederen: *diau* & *diagu*, *eztine* (Aldude), *diau* (Ezterenzubi), *diau* & *tiau* (Donaixti-Ibarre, Larzabale, Landibarre). Mendebalerat eta iparrerat gauzak bestela dira: Baigorriko Bidarrain eta Orzaizen, Arberoa-Iholdi alderdian eta Amikuzen, morfema etiko pleonastikoa

²⁴ Egia esan, polimorfismoa sumatzen da Aiherran: *zee* & *zakote* ‘zaie’, *zauku* & *zaiku* ‘zaigu’, *dauzkit* & *dait* ‘dizkit’. Bonaparteren garaitik hona aldaketak izan dira adizkietan Aiherran; esaterako, haren garaian *nintzen zena*, egun *nintzan* “behe-nafarragoa” da; Bonapartek *dazkote* ‘dizkiete’ bildu zuen, baina mende honetan *deztee* ageri da.

ageri da bukaeran eta baita Lapurdiko Aturrialdean ere: *diuk* ‘diagu’ & *diun* ‘dinagu’ erabiltzen dira; Lapurdiko Luhuson, Makean, Lekornen eta Hazparnen ere *diuk* & *diun* era ageri da.

6.2. Zuhaitz izenak osatzeko erabiltzen den *-tze* atzizkia ere ez da Nafarroa Behereko iparrean eta erdialdean baizik ageri: *-ondo* atzizkia hegoan eta erdialdean erabiltzen da: *intzaurrondo* (Bidarra), *mertxikondo* (Ezterenzubi), *sagarrondua* (Armendaritze), *geeziondo*, *mertxikaondo*, *urrizondo* (Gamarte). Baigorri herrian, berriz, *saardia* bildu dugu. Aldiz, *-tze* erdialdetik goiti ageri zaigu: *saartzte* ‘sagarrondoa’ (Armendaritze), *intzaurtzia* (Gamarte), *üdaratze*, *saartzetan*, *mertxikatze* (Larزابale), *pikotzetik*, *saartziak* (Arruta), *hurtzia*, *gaztañatze*, *intzaurze*, *saartzte* (Garruze), *frütatzetan*, *saartzetan*, *gaztañatzia*, *inzaurthez* (Arboti). Zuberotan ere *-tze* baliatzen da.

7. NAFARROA BEHERE GEHIENENKO EDO GUZTIKO EZAUGARRIAK

7.1. Ezin uka daiteke Nafarroa Behereko euskararen sinkopak eta aferesiak erabiltzen direnik; zein mailataraino iristen diren baieztatzea eginkizun erlatiboa da, zeinekin alderatzen den baita hor gakoa. Hitz batzuetan laburdura lexikalizaturik gelditu da, baina adibide anitzetan pareak ageri dira, aldaera laburtua eta osoagoa, biak entzun daitezke. Gauza ezaguna da, bestalde, Lapurdiko Aturrialdeko Beskoitzen bokal laburdurak badirela (Duhau 1993), eta Bardozen ere badira: *gaintikoik* ‘gainetikorik’, *saartan* ‘sagarretan’, *arle* ‘arizale’, *artzen* ‘aritzen’, *belhaunko* ‘belauniko’, *erten* & *erraiten*, *phaastu* & *pasatu*, *lau ontan* / *iphurdi*, *iphurtziloa*, *ikhusi*, *ikhasi*, *emazte*, *ezautu*.

Nafarroa Behereko hurrengo adibide sail honek, Baigorri iparrean eta Amikuzen aferesiak ausarki ageri direla erakusten digu, baina erdialderagoko iparretan ere badira aferesiak; sinkopari dagokionez, iduri luke Nafarroa Behere guztian zehar ageri direla: *erten* & *erraiten*, *zarri* & *ezartzen*, *kusi* (Bidarra); *artzia*, *kusi*, *ertora*, *erten*, *zarri* & *ezarri*, *abre*, *korrolia*, *goiten* & *oiten* ‘egoten’, *thurrira*, *phurdia* (Baigorri); *karri*, *eman* & *man*, *mazteki* & *mazte*, *zarri*, *zautuko* ‘ezagutuko’, *kusi*, *xilik*, *erten*, *abre*, *pasteko* (Aldude); *artzen*, *kusi* & *ikus*, *zautu*, *emazteki* & *emazte* (Orzaize); *erten*, *zartzen* (Irisarri); *ikhusi* / *khusten* (Heleta); *kusi* & *ikhusi*, *erten* & *erraiten*, *ezartzen* & *zartzen*²⁵, *emaiten* & *maiten*²⁶ (Armendaritze); *erten*, *izan take* ‘ditake’ (Izturitze); *erten* & *erraiten*, *kasia zuten* ‘ikasia zuten’, *zartzen*, *korlia*, *kuzten* ‘ikuzten’, *zautzen* (Arnegi); *agorlekuain* ‘agorrikoaren’, *khusteko* & *ikhusteko*, *mazte* (Ezterenzubi); *ezartzen* & *zartzen*, *gazama* ‘amabitxi’, *agorlain*, *erteko maneran*, *kusi* & *(i)khusten*, *bna* ‘baina’ (Gamarte); *ekhartzen* & *kharri*, *erteko*, *artzen*, *agorlan* (Larزابale); *erten* & *erraiten*, *artzen* (Jutsi); *abrea*, *mazteki* & *emazteki*, *zautzen*, *ezartzen* & *zarriz* & *zartzen*, *erten*, *artzen*, *argia man*, *kartzen* (Landi-barre); *zartzen*, *erten*, *kasu man*, *bna* (Arruta); *kartzen*, *kusi*, *purdirat*, *txusi* & *itxusi*, *gozaita* ‘aitabitxi’, *erten*, *zartzen* & *ezartzen*, *artzen*, *maiten* (Garruze); *gozaita*, *erten*, *itsusiak*, *esklapuin*, *iphurtik* (Arboti). Irantzu Epeldek dioenez, sinkopa eta aferesi guti egiten da Uztaritze-Hazparneetan (2003: 290-91).

²⁵ Baina anitzez erabiliagoa da *ezartzen* aldaera osoa.

²⁶ Anitzez erabiliagoa da *emaiten* aldaera osoa.

7.2. Hitzaren bukaera *u* bokala izanik mugatzailea eranstea sortzen den inflexioak, Baigorriko Aldude herria baizik ez du bereizten Nafarroa Behereko gainerateko ibarretarik: *gazitiguia*, *mamuia* ‘zomorroa’, *harrituia*, *zentsuia* saila dugu bertan, *eskiaz*, *merkhatia*, *buria*, *mamia* era berriagoarekin batean²⁷; *-uia* era hori da Aturrialdeko Beskoitzen egiten dena, Urketan, Arbonan eta Arrangoitzen bezala (Duhau 1993: 13), eta Lapurdiko Makean eta eskualde gehiagotan ere bada. Nafarroa Beherean *-ia* da hiato nagusia, aspaldiagoko Heletako *-üa* alde batera uzten badugu; Aturrialdeko Bardozen ere *-ia* da emaitza. Baigorriko Bidarrain, Urepelen eta Baigorri herrian, Arberoa-Iholdi alderdian, Garazin, Oztibarren eta Amikuzen *-ia* da hiatoaren emaitza eta aditz jokatueta *ue* hiatoak ere *ie* palatalizazioa ematen du; adibidez Armendaritzeko euskara har dezakegu: *lipia* ‘armiarma’, *amia* ‘amua’, *zerrriak*, *sagiak*, *alhalekia*, *eremia*, *zeria* ‘zerua’, *zindien* ‘zenuen’; hortik goiti, Nafarroa Beherean *-uia* izatekotan silaba bakarreko hitzak behar dute izan: *suia*, *bluia*. Lapurdiko ekialdean *-üa* egiten da Hazparnen, Makean, Lekornen eta Luhuson.

7.3. Beste hiatoei dagokienez, alde dago *ea* eta *oa*-ren jokabidean: oro har *ea* > *ia* hersketa orokorra da, baina *oa* > *ua* bilakabideak hautazkoa dirudi. Ez gara esaten ari hertsiki gabeko *ea* inoiz ageri ez denik, Heleta batean badira adibideak, esaterako, baina Nafarroa Beherean joera nagusia *ea* > *ia* bilakatzea da. Bokalek beren izaera galdu eta diptongo bihurtzea ere gertatzen da: esaterako, Oragarren *errégia* ‘erregea’ esaten da. Hona adibide batzuk: Amorotzeko *guria*, *ibiltzia*, *undarrian*, *izaitia*, *barnian*, Iholdiko *etxian*, *azkenian* edo Lekunberriko *larrazkenian*; Lapurdiko Hazparnen, Makean eta Bardozen ere honela da. Beste hiatoaren emaitzaren berri Larzabaleko adibideek ematen digute: *Gamartekoa*, *ondoan*, *kukusoa* / *pozoindatzekua*, *gaixtuan*. Nafarroa Beherean ez da sumatzen Zuberoan edo Aturrialdeko Beskoitzen ageri den bokal laburdura gogorrik: *etxik* ‘etxeak’, *azkenin* ‘azkenean’, *azkeein* ‘azkenean’, *besuk* ‘besoak’, *besun* ‘besoan’ (Beskoitze). Lapurdi barnealdean eta Hazparne aldean *ea* > *ja* eta *oa* > *wa* gertatu da (Epelde 2003: 292).

7.4. Bokalen arteko kontsonante bat galdu ondoan, guttiz arrunta da Nafarroa Beherean hiatoan gelditzen diren bi bokaletarik bat aldatzea; hiato berri hori inoiz diptongo izatera iristea ere gertatu ohi da: *lehenau* ‘lehenago’, *uai* ‘orain’, *zaun* ‘zegoen’ (Baigorri), *hain* ‘haren’, *kanpuat* ‘kanporat’ (Aldude), *geu ta* ‘gero eta’ (Irisarri), *zabartziat* ‘zahartzerat’ (Ezterenzubi), *hain* ‘haren’ (Jutsi), *etxiat* ‘etxerat’ (Landibarre), *ilaite* ‘hilabete’ (Garruze), *arboliat* ‘arbolerat’, *etxiat* (Arboti). Lapurdi aldean ere badira honelakoak: *ion* ‘egon’ (Makea), *ilaite* (Larresoro).

7.5. Ere mu zabala da *ue* > *ie* > *ii* asimilazioarena: adizkietan sumatzen da nabarmen (*zuen* > *ziin*), eta baita aditz laguntzaileari atzizkia eranstea ere (*nuena* > *niina*); *ie* > *ii* ere gertatzen da, esaterako *gibel* > *giel* > *giil* bezalako adibideetan. Usu, asimilazioaren ondorioa den *ii* > *i* laburtzen da. Hona sail erakusgarri bat: *ziilaik* ‘zuelarik’, *giiletik* ‘gibeletik’ (Bidarrain), *bainiin* (Baigorri), *ziin* ‘zuen’ (Aldude), *niin* (Orzaize), *ziin* ‘zuen’ (Irisarri), *tiin* ‘diren’, *ziin* ‘zuen’ (Heleta), *diina* ‘duena’ (Armendaritze), *giniin* (Izturitze), *hiin* ‘huen’ (Ezterenzubi), *beitziin* ‘baitzuen’ (Larzabale), *ziin* ‘zuen’ (Landibarre), *diila*

²⁷ Adizkietan *duienak* ‘duenak’ dugu, esaterako.

‘duela’, *zitiin*, *ziin* (Oragarre), *giileko*, *niilakotz* (Arruta), *baziin* ‘baziren’ (Amorotze). Ondoko herrietan ere bada bilakabide hau: Aturrialdeko Beskoitzen eta Bardozen edota beheiti Hazparnen eta Makean, esaterako.

Erdibideko atalak ere ausarki ageri dira datuetan: *ziela* ‘zuela’ (Hazparne), *duina* ‘duena’ (Aldude), *dielaik* ‘duelarik’ (Arnegi), *gintien* (Jutsi), *gindiena* (Landibarre), *tien* ‘dituen’ (Arruta); Amikuzeko Garruzen, esaterako, erdibideko adibideak edota bilakatu gabekoak franko direla dirudi: *duen*, *eztien* ‘ez duen’, *diela* ‘duela’. Arestian adierazi bezala, soiltzeak ere erruz ageri dira: *din* ‘duen’ (Bidarra), *zinin* ‘zenuen’ (Ezterenzubi), *zin* ‘zuen’ (Jutsi).

7.6. Ingurune gehiagotan ageri dira bokal asimilazioak; atzizki konparatiboan sendotasunez kokatu dira, batzuetan laburturik gainera: *berantoo*, *euskaldunoo*, *leeno* (Bidarra), *gutio*, *lodio* (Baigorri), *urosoo* (Orzaize), *beroo* (Helta), *barnoo*, *xuxeno* (Irisarri), *esnadunoo*, *gorrixoo* (Izturitze), *uzkailioo*, *xurioo* (Ezterenzubi), *habiloo* (Larزابale), *apalookoak* (Landibarre), *lehenooko* (Oragarre), *largo* (Arruta), *beantoo* (Garruze), *ttipio* (Arboti). Lapurdi aldean ere badira adibideak: *ttipixoo*, *gaizkioo*, *goroo* (Beskoitze), *nahio*, *goroxo*, *fitio*, *hertsio* (Bardoze), *xeexo*, *andio* (Makea), *gutio*, *pollito*, *itsusio* (Hazparne). Baita barnealdean ere: *urbiloo* (Milafranga).

Bada, bestalde, *o* bokalerantz lerraturiko asimilazioa “egon” aditzaren aldaera trinkoetan: *doo* ‘dago’, *zoon* ‘zagon’ (Izturitze), *doon* ‘dagoen’ (Armendaritze), *doo*, *zoon* (Ezterenzubi), *eztoo*, *doon* (Gamarte), *nindoolaik*, *doona* (Larزابale), *zoon*, *no* ‘nago’, *doon* (Jutsi), *zoon* (Landibarre). Amikuzen Oragarreko gure datuetan ez da ageri (*daona* ‘dagoena’, *zauna* ‘zegoena’), baina bada Lapurdiko Aturrialdean: *badook* ‘bazagok’, *doona* (Beskoitze), *zoon* ‘zegoena’, *do* ‘dago’, *doozu* ‘diagozu’ (Bardoze) eta baita Hazparne aldean ere, baina Lapurdi barnealdean ez. Baigorriin ere ez da erabiltzen: *zaun* ‘zagon’, *daona* ‘dagoena’.

7.7. Diptongo baten bi emaitza desberdinek ere Nafarroa Behere guztia batzen dute: *euri* eta *uli* ‘eulia’ formak Nafarroa Behereko eremu guztian ageri zaizkigu, bigarrenak Oztibarren *ulu* eta Amikuzen *ülü* asimilazioa jasanik: delako *euri* osoago hori, Baigorri, Arberoa-Iholdi alderdia, Amikuze, Landibarre, Oztibarre eta Garaziko datuetan ageri da; ñabardura bakarra, Amikuzeko palatalizazioa da, *eüri* ere bai baitago Arrutan eta Arbotin. Lapurdin, berriz, *uri* dugu Ziburun, Saran, Urketan eta Bardozen, baina *euri* Arbonan, Itsasun, Makean, Hazparnen eta Bardozen. Nafarroa Beherea batzen duen *uli* aldaera soilagoa Bidarrain, Baigorriin, Irisarrin, Armendaritzen, Izturitzen, Ezterenzubin, Gamarten eta Larزابalen dugu; asimilaturik *ulu* dugu Oztibarreko Larزابale-Jutsietan eta Landibarren; Amikuze aldean *ülü* aldaera ageri zaigu Behaizen, Arrutan, Garruzen eta Arbotin. Onddo-onddoan, *uli* dugu Lapurdiko Beskoitzen, Urketan, Itsasun eta Hazparnen nahiz itsasaldean ere. Bardozen *ülü* aldaera palatala dago.

7.8. Kontsonanteen sailean hasperena dugu Nafarroa Behere guztian; ozen eta herskari hasperenduak ere Nafarroa Behere guztian ageri zaizkigu: ez dute hauek beharbada leku guztietan intentsitate bera izanen edo ez dira gardentasun berarekin entzunen; Baigorriko eta Garaziko orain arteko datuetan ageri badira ere, iduri luke kontsonante hauek egun aldapan beheiti amildu direla (Duny Pétré 1959: 50). Ñabardurak alde batera utzirik, ordea, garbi ageri da Arberoa-Iholdi alderdian, Baigorriin, Garazin, Oztibarren eta Amikuzen oraintsu arte ahoskatu direla; ondoko Hazparnen, Makean, Bardozen

edo Beskoitzen ere badira. Heletan guk bildu adibideak dira honakoak: *okhina*, *ikhusi*, *ukhan*, *khantatu*, *khuutzia*, *muthiko*, *urthe*, *phesta*, *phasatzen*, *belharrak*, *zilharrak*, *lanho...*; Oragarren bildu ditugu *urthe*, *ikhasi*, *ikharan*, *belharka...* I. Epeldek adibide bakan bildu du Larresoro aldean; Hazparnen gehiago (2003: 293-94).

7.9. Semantikoki ñabardurak dakartzaten *txar*, *tzar*, *zori* & *tzori* 'txori handia' bezalako adibideak alderdi batera utzirik, hitz hasierako txistukari sabaiurrekoetan igurzkarien saila nagusitzen da Nafarroa Behere guztian: *ximixta*, *xorta*, *xori*, *xorroxtu*, *xuri*, *xakur*, *xitxi*, *xokho*, *xutik*, *xita...* Lapurdiko barnealdean ere halaxe da.

7.10. Bokal arteko dardarkari bakuna eta trabari igurzkariak galdurik, hasperentzea gertatzea guztiz arrunta da Nafarroa Behere guztian eta badira adibideak ondoko Hazparnen, Beskoitzen edo Bardozen ere. Hona adibide batzuk: *ihetsi* 'ire(n)tsi', *gihiletik* 'gibeletik' (Baigorri), *bahatzetan* 'baratzetan' (Iholdi), *ihiltzian* 'ibiltzean' (Donibane-Garazi), *zihikota* 'zirikota' (Ezterenzubi), *gihilka* 'gibelka' (Lekunberri), *ahan* 'arana', *ohoitzen* 'oroitzen' (Armendaritze), *ohia* 'orea' (Landibarre), *ehatsi* 'ebatsi', *bihamunian* (Oragarre), *behotü* (Garruze). Beskoitzekoak dira, bestalde, *zahal* 'zabala', *zehirri* 'zedarria' edo *pohore* 'podorea'. Uztaritzen *ihetsi* eta *bihamun* bildu ditu Epeldek (2003: 293).

7.11. Trabari igurzkariak eta dardarkari bakuna bokalen artean galtzea ere Nafarroa Behere guztian gertatzen den bilakabidea da: *gasnateia* (Bidarra), *ilunaar* (Baigorri), *iiltzeko* 'ibiltzeko' (Orzaize), *ene ostuko* 'ene gostuko' (Heleta), *iakoitz* 'ebiakoitza' (Landibarre), *eatsi* 'ebatsi', *iraazten* (Oragarre), *zaalik* (Arruta) / *bihaamunian* (Baigorri), *baatze* 'baratzea' (Armendaritze), *buu* 'burua' (Larزابale), *iduitu* 'iduritu' (Amorotze). Ondoko Makean, Hazparnen, Bardozen eta Beskoitzen ere arruntak dira bilakabideok eta baita Lapurdi barnealdean ere.

7.12. Zenbait sandhitan, herskaria edo urkaria gehi txistukaria lotzean, bi osagairen arteko loturan afrikatzea gertatzea ere arrunta da Nafarroa Beherean: *uts einak tzien* 'eginak ziren'; *pareen tsaria* 'pareren saria' (Orzaize), *etsiak tzien* (Irisarri), *eer tso* 'haiei begira' (Heleta), *erran txaharra* 'erran xaharra' (Armendaritze), *komuntsari* 'komun + sari' (Izturitze), *ain tseur* (Arnegi), *ostegun tseindu* (Gamarte), *debalüatu zen tsoa* 'sosa devaluatu'; *jinak tzien* (Oragarre), *urtzolan* 'ur + zolan' (Arruta), *xuun-txuuna* 'xuxen-xuxena' (Garruze); Lapurdiko muga ere halaxe da: *kaalak tzien* 'kabalak ziren' (Makea), *larreak tzienak* (Hazparne); baita barnealdean ere: *serorak tzien* (Larresoro).

7.13. Dardarkariak eta herskari belareak osatzen duten kontsonante taldea soiltzea ere Nafarroa Behere guztian ageri den ezaugarria da: *hak* 'hark' eta *nok* 'nork' aldaera laburtuak Baigorri, Arberoa-Iholdi alderdian, Amikuzen, Oztibarren eta Garazin ageri dira; datuen arabera, ondoko Makean, Bardozen eta Beskoitzen ere badira. Bestalde, *nehok* 'nehork' laburtuaren adibideak ere ausarki ditugu Nafarroa Beherean.

Ez dakigu *horko* > *horgo* adibidean gertatzen den herskari belarearen ahosuntzeak arestiko bilakabideen geografia-hedadura iristen ote duen, baina bildu ditugun datuetan segurik, Baigorri, Garazin, Oztibarren, Landibarren eta Amikuzen ageri da; Aturrialdeko Bardozen ere bada.

7.14. *-antxa* atzizkiaren bustidura hainbat mailegutan ageri da: *labo(r)antxa*, *konfiantxa*, *esperantxa*; Landibarreko *ixkiantxak* 'izkribuak' hi-

tzean ere badugu; Nafarroa Behere guztiko ibarretara hedatu da atzizki bustia eta ondoko Lapurdiko Aturrialdean, Bardozen erabiltzen da, baina Beskoitzen *laborantza* eta *esperantza* dakartza Duhauk. Epeldek *laborantxa* eta *esperantxetan* dakartza Larresoron.

7.15. Izenaren morfologian gauza jakina da Nafarroa Behere guztian eta Lapurdiko barnealdeko hizkeretan pluraleko ergatiboaren atzizkia *-ek* dela, baina guk hona pluraleko datiboaren gaia aurkeztu nahi dugu: ekialdekoztat jo ohi den *-er* atzizkia, Nafarroa Behere guzti-guztitan erabiltzen da eta Lapurdira ere sartzen da: Hazparnen, Makean, Lekornen, Luhuson eta Itsasun bederen erabiltzen da (Epelde 2003: 297); Larresoro aldean *-eri* da morfema, Nafarroa Behereko mendebalean ere inoizka ageri dena: *jauneri* Baigorri (1913), *ardieri* Bidarrain, *beieri* Irisarrin; Makean ere badira adibideak (*behorreri*, *haurreri*), baina *beier*, *xito tipier* bezalako ondoan. Beskoitzen, ordea, *-eri* da atzizki bakarra (Duhau); XIX. mendeko inkesta idatzietan pluraleko *-erri* atzizkia bildu zen Mugerren, Lehuntzen eta Beskoitzen (Allières 1986: 12); I. Epeldek *bierr* ‘biei’ eta *eierri* ‘haiei’ adibideak bildu ditu Uztaritzen.

7.16. Nafarroa Beherea batzen duen sozietiboko atzizkia *-kin* da, inoiz *-ki* ere ageri den arren: adibide bakarra Larzabaleko *makilaeki* dugu; Lapurdiko Makean ere bildu da: *neskato bateki*. Ez dirudi Larresoro aldean *-ki* ageri denik (Epelde 2003: 107-08).

7.17. Destinativoko atzizkian ere batasuna dago Nafarroa Beherean: *-tako* ibar guztietan erabiltzen da; ezaguna denez, prolatiborako ere ibiltzen da. Baigorriko adibideak ikus ditzakegu: *enetako*; *belharra erosi diat hiru astorendako* eta prolatiboan Garruzeko *emaztetako artu...* Atzizki horretaz gainera bada *-tzat* ere, erabilera maiztasun urriagoa duena, baina inoizka ageri zaiguna; gure datuetan Baigorri, Arberoa-Iholdi alderdian, Garazin, Oztibarren, Landibarren eta Amikuzen ageri da: *asko gauzentzat* (Bidarra), *emaztetzat hartu diat* (Baigorri), *elgarrentzat samur* (Aldude), *etxeko haraiandako & haragiarentzat* (Orzaize), *enetzat* (Armendaritze), *senartzat hartu* (Landibarre), *belhaioarentzat hartzen zen* (Ezterenzubi), *bariarentzat* (Jutsi), *unenbeste zakhü ogintzat* (Garruze). Lapurdi ondoko Makean eta Bardozen gauzak Nafarroa Behere guztian bezala dira eta Beskoitzen, berriz, ez da *-tzat* baizik erabiltzen. Lapurdiko barnealdean *-tzat* eta *-tako*, biak erabiltzen dira. Jakina da, bestalde, euskara zaharrean edo Tartas idazlearen lanean bezala, edute genitibo hutsak adiera destinatiboa ere baduela; bada honetarik egungo Nafarroa Beherean: *xixtapurrak beiratuko tzu suiain*, *pizteko edo sua nahi zelaik haunditu re*, *ekarrak xixtapur ahutra at* (Gamarte); *hala-hala behorren ere* (Larzabale).

7.18. Instrumentala mugaturik agertzea ere eremu honetako hizkeren ezaugarria da: *eunaz* ‘egunez’ (Orzaize), *itxasorat giilaz*; *gauaz* (Izturitze), *gauaz* (Arnegi), *gauaz eta egunaz* (Ezterenzubi), *gauaz*; *behar zen otsailaz* (Gamarte), *gauaz* (Larzabale, Jutsi eta Garruze), *gauaz*, *egünaz* (Arboti); Arrutan, ordea, *gauaz* bildu da. Ondoko Bardozen ere bada ezaugarri hau: *egunazko langiliak*; *gauaz ari zenak*. Lapurdiko barnealdean ere honela da (Epelde 2003: 108).

7.19. Adlatiboan *-rat* atzizkia erabiltzeak ere batasuna ematen die Nafarroa Behereko hizkeri; herri batzuetan beste batzuetan baino erabilera maiztasun handiagoa du (Irisarriko datuetan franko erabilia da *-rat*, esaterako), baina ñabardura horiez landa, *-rat* Nafarroa Behere guztikoa da: EHHA-ko

Baigorriko lekukoak dioenez, berak ez du berezitasunik sentitzen *-ra* eta *-rat*-en artean, harentzat berdin da “elizara” edo “elizarat”. Ondoko herrietan ere badira *-rat*-en adibideak Makean, Hazparnen, Bardozen eta Beskoitzen; baita, bestalde, Lapurdi barnealdean ere.

7.20. Hurbiltze adlatiboan erabiltzen den *-ri buruz* (batzuetan *-ra(t) buruz*) ere Nafarroa Behere guztian ageri zaigu, Lapurdi barnealdean bezala: *etsaiar buruz* (Aldude), *hurtziai buruz doa* (Arnegi), *martxoan... udari buruz* (Armendaritze), *ilhunaarri buruz* (Larabale), *mutiko hari buruz joaiten gira* (Landibarre), *atsari büüz* (Arboti). Gure datuetan Aturrialdeko Bardozen ere bada ezaugarri hau. Adlatiboko atzizkiaren aldetik *etxerat buruz* (Bidarra) aipa daiteke.

7.21. Lapurdin bezala, ablatiboko atzizkia *-tik* da nagusiki, baina *-ti* zaharra ere ageri zaigu inoizka Nafarroa Beherean, eta ongi hedaturik gainera: *bideti joaiteko* (Aldude), *artoti landa*, *ogiti landa* (Gamarte), *heenti* ‘hemendik’, *begiti* (Larabale), *feirati landa* ‘feriatik landa’, *büüti büürü* (Garruze), *nuntik & nunti* (Arruta), *nunbeiti*, *heenti*, *bazterreti*, *suurreti zilintzo* ‘sudurretik dilindan’ (Arboti). Irudi luke Zuberoa ondoko Arbotin *-ti*-ren erabile-ra sendoagoa dela *-tik* nagusi den beste eremuetan baino; halaz ere *gerlatik* eta *elizatik* ageri dira Arbotiko datuetan. Lapurdiko Makean ere badira *-ti*-ren adibideak: *ortzeguneti goiti*, *emendi*, baina Larresoro aldean ez (Epelde 2003: 105).

Mugagabeko eta pluraleko atzizkia *-eta(r)ik* da eremu guztian, Lapurdin bezala; Garaziko Hoztan salbuespena dirudien *aldetatik* bildu da (Irizar 1999: 353).

7.22. Ez dakigu xuxen zein hedadura duen *-rikan* atzizki pleonastikoak: Lapurdiko Aturrialdeko Beskoitzen ausarki dakar Duhauk (*zelaikan*, *etxin dielaaikan*, *hor delaaikan*) eta Mugerren ere ageri da EAEL-n, baina gaineratekoan, Baigorri aldean dakusagu sendoenik: Alduden *ginaudelaikan*, *dielai-kan*, *geroztikan*, *gootikan* eta *hutsikan* dakartza Trebitsch-ek 1911n eta egungo datuetan, *eri delaikan*, *etxetikan* edo *itsasotikan* bildu dira (EHHA); Baigorri herrian, berriz, *surik ezten lekutik eztela kherikan* esaera bildu da. Garazin ere badira adibideak: *Loilakaten etxaldia salduikan* dakar Duny Pétrék Donibanen eta Luzaiden ere bada: *behautelaikan* (Irizar 1999: 294); idazle garaztarrek ere, esaterako J. Barbier-ek, erabili izan dute. Lapurdin ez da ezezaguna esaldi kontzesiboetan: Larresoron eta Uztaritzen erabiltzen da eta Hazparnen ere bai, baina maila apalagoan (Epelde 2003: 297).

7.23. Erakusle pluraletan hedadura handia biltzen du *hok*²⁸ ‘hauek’ / *hoik*, *horik*, *horiek & horiik* ‘horiek’ / *hek & heek* ‘haiek’ sistemak: Nafarroa Behere guzti-guztian erabiltzen da²⁹. Bildu ditugun datuen arabera, Aturrialdeko Beskoitzeraino eta Arberoako Izturitzeraino joan behar da *hauk* ‘hauek’ aldaera entzuteko, baina *hok* ere bada Izturitzen; Beskoitzen, gainera, eta Lapurdiko Larresoron bezala (Epelde 2003: 300), Nafarroa Beherean ezagutzen ez den bereizketa egiten da absolutiboaren eta ergatiboaren artean pluraleko erakusleetan: *hauk*, *hoik*, *hek* versus *hauek*, *hoiek*, *heiek*. Beste aldetik, Ami-

²⁸ Irisarrin *hook*.

²⁹ Zuberoan ere badira *hok*, *hoik & horiek* eta *hek*.

kuzeko Arbotiraino ez zaigu *hauek* forma ageri, nahiz herri honetan baden *hok* ere.

7.24. Pertsona izenorde hanpatuen saila *nihaur, hihaur, guhaur, zuhaur, zihaur* & *zihaurek* aldaeren bidez osatzen da Nafarroa Behere guztian, nahiz aldaketatxoren bat ere jasan dezaketen; esaterako, Armendaritzen *niaur* & *nior* ageri da. Aturrialdean Bardozek sistema hau darabil, baina Beskoitzen, sistema honez gainera, Lapurdikoagoko saila bildu du Duhauk (1993: 49): *nihooone* & *nihoor*, *hihoone* & *hihoor*, *guhoone* & *guhoor*, *zuhoone* & *zuhoor*, *zihooone* & *zihoor* / *nihonek* & *nihoo(ne)k*, *hihonek* & *hihoo(ne)k*, *guhonek* & *guhoo(ne)k*, *zuhonek* & *zuhoo(ne)k*, *zihonek* & *zihoo(ne)k*.

7.25. Pluraleko zenbatzaile zehaztugabearen absolutiboko forma *batzu* da Nafarroa Behere guztian, Amikuzeko *batzū* barne; Aturrialdeko Bardozen ere *batzu* dugu; baita barrenerago ere, esaterako Larresoron (Epelde 2003: 118).

7.26. Zenbatzaileetan jarraiturik, *bat* formaren mugagabeko jokoan *bate-tan*, *batetatik* bezalakoak ditugu Nafarroa Behere guztian: Baigorri, Arberoa-Iholdi alderdian, Landibarren, Amikuzen, Oztibarren eta Garazin adibideak ageri dira, eta Lapurdiko Larresoro eta Uztaritzerraino bederen iristen dira (Epelde 2003: 118). Halaz ere, “batean”, “batetik” sailekoak ere erabiltzen dira Nafarroa Beherean, esaterako, Bidarrain, Alduden, Baigorri edo Landibarren.

7.27. Zenbatzaile zehaztugabeetara *nor* izenordain pertsonalaren bokala analogiaz iragan dateke: *zonbeit* & *zomait*, *zoin*, *zonbat* & *zomat*, *edozoin* ditugu Nafarroa Beherean. Bilakabide honen oihartzuna Lapurdiko barnealde-ira iristen da.

7.28. Arras hedaturik dago Ipar Euskal Herrian pluralean joan beharko luketen formak mugagabeen jokatzea; Nafarroa Behere guztian gertatzen da hau: *etxe kanpotan* (Aldude), *Xuberoko menditarat* (Baigorri), *beste lekhutan* (Armendaritze), *arditan e gerthatzen da* (Izturitze), *leen emengo erri ttipitan* (Gamarte), *mahastitan* (Jutsi), *eauntsitan* (Garruze), *frütatzetan*, *zalditan* (Arboti).

7.29. Hanpaturik doazenean, adberbioak eta aditz sintagmako adjektiboak errepikatzen dira, eta absolutiboaren atzizkia har dezakete; Lapurdin eta Nafarroa Beherean gaindi ageri da hau, aukera bakarra ez bada ere: *e[gl]on prestu-prestia etxe ondoan* (Aldude), *eta bilhoa zut-zuta plantatzen* (Izturitze), *astoa eztuzu xuin-xuina joain goiti* ‘xuxen-xuxen’ (Gamarte), *behiak hor, eta beharriak zut-zuta eta jendiari so* (Arruta), *apal-apala ibiltzen tzu* (Garruze). Ordea, *-a* gabekoa da Irisarriko adibidea: *frexko-frexko delaik*; Oragarren *emeki-emeki indarra jiteaakin* adibidea bildu dugu, Nafarroa Garaiko Aezkoan, esaterako, “emeki-emekia” litzatekeena.

7.30. Zuberoan ez bezalako zenbatze sistema itxuraz berriztatua erabiltzen da Nafarroa Behere guztian zehar: *hirutan oi* ‘hirurogei’ (Izturitze, Armendaritze, Ezterenzubi), *latan oita zortzi* ‘laurogeita zortzi’ (Larزابale), *latan oi* (Landibarre), *lautan oita bigarren* (Arboti). Aturrialdeko Bardozen eta Beskoitzen ere berdin egiten da. Ezaugarri honek jarraipena du Lapurdiko barnealdean.

7.31. Nafarroa Beherean erruz ageri zaigu *-kutz* atzizkia, adiera kausala, xedezkoa, baldintzazkoa edo denborazkoa duela: *ez duelakutz ausiki egiten* (Baigorri), *irratia eskuaraz delaik*, *hua hastio dute eskuaraz delakutz*, *eztutelaik bertzeik konprenitzen* (Orzaize), *phozoindatzekotz*, *hartakotz* (Armendaritze),

izaitekotz, bethikotz, oaikotz (Izturitze), *gostatzen zitzakolakotz* (Ezterenzubi), *adio sekulakotz* (Gamarte), *gure haur denborakotz* (Larزابale), *artakotz* (Oragarre), *ordükotz, eztelakotz* (Arboti). Aturrialdeko Beskoitzen eta Bardozen ere *-kotz* ageri zaigu, baina Makean eta Hazparnen *-koz* dago datuetan, Nafarroa Behereko Bidarrain bezala; *-kotz* ezaugarri honek jarraipena du Lapurdiko barnealdean.

7.32. Modua adierazteko partizipioari eransten zaion *-rik* atzizkia Nafarroa Behere osoan erabiltzen da, baina ezin atzendu daiteke *-ta* atzizkia ere herrialde guztian entzuten dela: *eroriik / erorita* (Bidarra), *kitoik / hunkituta* (Izturitze), *intzunik / lehertuta* (Armendaritze), *joanik / lohtuta* (Gamarte), *utziik / hartuta* (Larزابale), *lokhartuik / finituta* (Landibarre), *zertuik / antzututa* (Garruze).

7.33. Denborazko perpausetan *-la(r)ik* atzizkiaren erabilera nagusitzen da Nafarroa Behere guztian: Baigorri, Arberoa-Iholdi alderdian, Amikuzen, Landibarren, Oztibarren eta Garazin anitz erabiltzen da eta baita Lapurdiko Makean eta Hazparnen, barnealdean nahiz Aturrialdeko Bardozen ere. Ordea, badira *-nian* atzizkiaren adibide franko ibarrotan: *hurrandu zenian* (Aldude), *denboa ortziatu behar denian* ‘erauntsia sartzera doanean’ (Armendaritze), *aanteila in behar zenian* (Izturitze), *hazia ondu denian* (Larزابale), *hausten dütenian* (Arboti). Ondoko Aezkoan ere, *-leik* nagusi den arren, inoizka erabiltzen da *-nean* itxuraz zaharra; Lapurdiko Hazparnen eta Bardozen ere bada *-nian* eta badakar Uztaritzeko XIX. mendeko kristau ikasbide batek ere.

7.34. Lapurdiko erdialdean eta ekialdean bezala, denboraren muga adierazten duen *-no* atzizkia erabiltzen da Nafarroa Behere guztian: Arberoa-Iholdi alderdian, Baigorri, Garazin, Landibarren, Oztibarren eta Amikuzen, eta baita Aturrialdeko Bardozen eta Beskoitzen ere; adibidetzat Larزابaleko *irauten dieno* eta Baigorriko *gerla zeno* erakuts ditzakegu.

7.35. Erdal *-(t)ione* atzizkiak *-zione* eman du Nafarroa Beherean ere: *situazione* (Irisarri), *konparazione* ‘adibidez, esate baterako’ (Baigorri, Heleta), *punizionea* ‘zigorra’ (Landibarre), *konfirmazione* (Arboti). Lapurdiko barnealdean ere hala-hala da.

7.36. Nafarroa Behere guztia batzen duen atzizkia da *-ño* txikigarria: *urrunxagoño* (Aldude), *emazteño* (Irisarri), *meheño* (Heleta), *tipiño* (Ezterenzubi), *xilhoño* (Larزابale), *meheño, ostallaño* (Landibarre), *baño* (Oragarre), *bürriño* (Arboti). Aturrialdeko Bardozen eta Beskoitzen ere bada, baina Lapurdiko barnealdean Hazparne aldean baino gutiago (Epelde 2003: 300).

7.37. Adlatibokoa da “utzi” aditzaren osagarriari ageri den atzizkia: *utzak lan horren egitera* (Baigorri); *errape hua behi hak hunkitzeat uztia* (Izturitze); *enien utzi nahi hantik joaita* (Ezterenzubi); *hoztea utzi gabe* (Garruze). Aturrialdean ere honela da: *eztu uzten zuritzeat labia; üzten jeisterat* (Bardoze); *utzi nian iteat* (Beskoitze). Lapurdiko barnealdean ere halaxe da. Bestalde, “hasi” aditzean ere adlatiboa dakusagu Gamarteko bi adibideotan: *pixkat sortzeat hasi; hasik hozitzeat*. Orzaizeko adibidean “aizu” dugu: *harekin ezkinen aizuz eskuaraz mintzatzera*.

7.38. Nafarroa Beherean hedadura handikoa da *orde* posposizioa; Baigorri herrian *partez* gehiago erabiltzen da, baina “orde” ez da ezezaguna; hona Lacombe Alduden bildu adibideak: *joaiteko partez; pasatzeko plazan; hilaren plazan* (Aldude); Garazin ere bada “plazan”: *biga badira baten plazan* (Ga-

martel). Hona orain *orde*-ren adibideak: *erraiteko orde* “urina badu” (Ezterenzubi); *erraiteko orde* (Gamarte); *iiltzeko orde* (Larزابale); *burdiñaz izan orde*; *erran orde* (Garruze); *igan orde*; *ukhan orde* (Arboti). Lapurdiko Aturrialdean eta barnealdean ere bada.

7.39. Ez da posposizioena batasuna aurkitzeko eremu erosoia, baina iruditzen zaigu aski batasun handia dagoela Nafarroa Beherean “goiti” & “gora”, “beh(e)iti” & “behera”, “kontra” & “kuntre”, “hurran” & “hurbil”, “barna” posposizioen jokabidean ere; gehienik datiboaren bidez antolatzen dira, baina inesiboa eta beste zenbait atzizki ere baliatzen da: *karrikai beheiti* (Baigorri); *eliza erdia barna*; *ixterrak beheiti* (Aldude); *haga bati kontra* (Orzaize); *ixterren goiti*; *eskeler gora*; *mugari behera* (Armendaritze); *murru zahar baten kontra*; *murriari kontra* (Izturitze); *mahasti bati hurbil*; *mendiari kontra*; *hurari goiti*; *lurrai kontre-kontre* (Ezterenzubi); *murru bati kontre*; *elgarri hurran* (Gamarte); *pantalonar goiti*; *baxari behea* ‘amildegian behera’ (Larزابale); *erroter kontra*; *arboler goiti* (Landibarre); *bidari gora abiatu* (Amorotze); *ar-toari goiti* (Arruta); *paeta aten beiti*; *zurari kuntre* (Garruze). Aturrialdeko Bardozen badirudi ablatiboa eta instrumentala ere baliatzen direla: *menditik behiti*; *hortzez behiti*; *puntaz behiti*; *hortzez goiti*. Lapurdiko barnealdean ere, *barna*, *goiti*, *hurbil* edo *kontra* posposizioek jokabide iduria dute.

7.40. Aditz nagusien morfologiaren alorrean *-ki* atzizkia aipa daiteke, batzuetan balio hanpatzailea eta beste batzuetan adiera puntukaria duena (Iñigo, Salaberri & Zubiri 1995): *arbolaondoa da oso goiti egoki dena, oso-oso goiti...* (Bidarra); *iratzartu zenean, erloirik ez izaki etxean eta* (Urepele); *etziizte airean ibilki* (Baigorri); *juanki uk* (Irisarri); *batzu gio phaatxan gain hortan etxeko urdiak eta hetan beroan izanki ta eta heetan akhetzak eta ikhusi tzit sorthiak e* (Armendaritze); *gerthatu niz hor mendian, gerthatu niz, soldadoak hor ibilki, ono eztu hanitz denbora* (Ezterenzubi); *gio bauzü beste at, bestalde, iten tuztenak artzain batzü, baño herrian izangi eta aурten lehen leendako, etxe güzia dena ferman hartzen* (Arruta); *ibilki dira* (Garruze). Diosala balioa du Armendaritzen bildu den *eonki* formak. Lapurdiko barnealdean ere, puntukaria nahiz hanpatzailea izan daiteke morfema hau (Epelde 2003: 128-29).

7.41. Agertze maiztasun eta geografia-hedadura handia du *-ke* modu atzizkiak Nafarroa Beherean, ustearen eta ahalaren adiera izan ohi duena: *aditu duket* (Baigorri); *bauke segur hark bee izena* (Irisarri); *gerthatzen ditazke*; *eztikek arimaik* (Armendaritze); *bana segurtatzen dautzut zure mandoa ez-tela hemen behiti paastua, eta bere sokaekilan utzi dukezu, soka arrestan han nunbait* (Ezterenzubi); *aitak bazekikexun*; *bazitaken e denetan* (Oragarre); *fini dikie* (Arruta). Aturrialdean edo Makean ere berdin: *hur kurrentak zuken korda xehatu* (Bardoze); *gizon hoi ikusi dukeiat nunbeit* (Beskoitze); *pasatu zitaken* (Makea). Lapurdiko barnealdean ere erabiltzen da.

7.42. Guztiz baturik ageri zaigu Nafarroa Beherea aditz izeneko *-ite* morfemaren bidez; Lapurdiko herrietan ere halaxe erabiltzen da, mendebalean izan ezik. Nafarroa Behereko salbuespentzat Izturitzeko *atxematen* aldaera erakuts daiteke, nahiz berarekin batera Izturitzen *atxemaiten*, *erraiten*, *egoiten*, *joiteko* adibideak ere bildu diren.

7.43. Aditz nagusiak azken kontsonantea *-n* edo *-l* duenetan, etorkizuneko morfema *-en* da Lapurdin bezala Nafarroa Beherean ere; *-go* aurkitzen dugunean, jabetu gaitzen hor *gogo* > *go* laburtzapena gertatu dela: *hilgo* ‘hil + gogo = hil nahi’ da Jutsin, esaterako; Alduden, Orzaizen, Heletan, Armen-

daritzen, Larzabalen, Arbotin eta Bardozen ere bildu da. Lapurdiko barnealdean ere bada (Epelde 2003: 184), eta baita Baztan-Bidasoan edo Aezkoan ere.

Esan dezagun, bestalde, bokalez bukatzen diren aditz nagusietan, Nafarroa Beherean ez dela arrunta Zuberoan ohikoagoa den “-tu” = “-i” + “-ren” lotura, ezta Amikuzen ere; bildu datuetan, Alduden *adituren* dugu (1911), Baigorriko kantu batean *ikusiren* eta Aturrialdeko Beskoitzen *joon diat* ‘joren diat’; aldaera hau Hazparnen ere bildu da (Epelde 2003: 306).

7.44. Nafarroa Behere guztian ageri dira partizipio analogikoak: *i(r)akurtu* ‘bereizi eta hautatu = irakurri’ (Bidarra, Armendaritze, Larzabale, Arruta), *at(h)eatu* (Irisarri, Ezterenzubi, Landibarre, Bardoze), *at(h)eratu* (Urepele, Aldude, Izturitze, Bardoze), *iatzartu* (Baigorri), *botatu* (Bidarra, Aldude, Ezterenzubi); Lapurdiko barnealdean *ateatu* edo *botatu* bildu dira (Epelde 2003: 125).

7.45. Nafarroa Behere guztian egiten da aditzoinaren erabilera berezi hori, “*edin” eta “*ezan” erroetan oinarriturikako adizkia baitezpada galdegiten ez duena, aginte edo ahal adiera nahitaezkoa ez duena, Nafarroa Garaiko Zaraitzun-eta entzun ohi den bezalakoa; nabarmena da adibide ugaritan denborazko balioa duela, baina beti ez da denborazkoa: *ezin gehiago itzul* (Bidarra), *etzakien zer pentsa* (Aldude), *behar zen zerbaitez betha zola hua* (Baigorri), *kabalak molda ta ola* (Orzaize), *eta tak pharti; ezin khen* (Armendaritze), *bildotsa egin, animalekoak, eta gizent eta sal* (Izturitze), *urzoak ezar eta jautsaraz; kokoriko jar eta han* (Ezterenzubi), *adarra hauts eta* (Gamarte), *bilhoa erra* (Larzabale), *hua motz eta* (Arruta), *bazakiziün nuntik lot* (Arboti). Lapurdiko ondoko herrietan ere bildu da: *trapu baten barnian ezar eta* (Hazparne); *hentik pharti ta; ezkont eta* (Bardoze). Lapurdiko barnealdean ere badira honelako adibideak.

7.46. Ahalera adierazteko erabiltzen den “aditz nagusia + *ahal*” egiturak ere batasuna ematen dio Nafarroa Behereari; Lapurdiko barnealdean ere hala-hala egiten da.

7.47. Nafarroa Behereko eratzat jo ohi da datiboarekiko hautazko komunztadura, gerora Lapurdira ere lerratu dena (Sarasola 1991: 24); datiboa hirugarren pertsonari dagokionean gertatzen da gehienik. Behauzko berriemaile batek Koldo Artolari ziotsoenez, aldaera tripersonalak, eguneroko mintzoan baino gehiago, *elizáko libúrian* ageri dira (Irizar 2002: 97). Nafarroa Behere guztian ditugu morfema datiborik gabeko erabilerak: *jornalak eman zitian Ferranddoi* (Baigorri), *mekanika nausitzen baita iendeari* (Orzaize), *horri xaharrek artoski so egiten zuten* (Izturitze), *hari iten duzu urin bat zuri-zuria* (Larzabale), *zeek konda bazinezate baño eni; bena guri etzuten iten ez olakoik* (Oragarre). Aturrialdeko Bardozen ere badira adibideak: *haurrer inarazten zuten*. Lapurdiko barnealdean ere ageri da berrikuntza hau.

7.48. Ez dakigu zenbaterainoko hedadura duen alegiazko baldintzetako *-t(z)en* aditz izen burutugabeak; egungo datuetan Baigorri, Garazin eta Arberoa-Iholdi alderdian ageri da: *gizona hiltzen ezpalitz enea lukek* (Baigorri); *ua jiten balitz* (Irisarri); *atheatzen balitz bezala* (Ezterenzubi); *hek estalarazten balire har liote berdin* (Gamarte). Amikuzen ere badateke, J. F. Cerquand-ek XIX. mende bukaerako Oragarren *etxekandereak ikhusten balu* bildu baitzuen (1985: 45). Lapurdin ere erabiltzen da Larresoro-Uztaritze alderdi horretan (Epelde 2003: 306).

7.49. Euskal Herriko bazter gehienetan aditz trinkoaren bidez adierazten diren ekintza batzuk aditz perifrastikoen bidez adierazten dira Nafarroa Beherean: *ekartzen duzu* ‘dakarzu’ (Aldude), *ekhartzen dik* ‘zakarrek’ (Baigorri), *ekartzen du* ‘dakar’ (Aiherra), *ekartzen dik* (Landibarre), *juten da* (Garruze), *juiten da* (Arboti); baita Bardozen ere: *joaiten hiz*. Esaterako, Amikuzen bi mendetan bost aditzek galdu dute beren jokaera trinkoa (Haase 1994: 177). Trinkoen erabilera ahula dugu Lapurdiko barnealdean ere (Epelde 2003: 179-183).

7.50. Irantzu Epeldek dioenez (2003: 305), aditz nagusi iragankorrei lotzen zaien “ukan” aditz berezia, ohikotasuna adierazten duena, bada Hazparnen, baina barnealdean ez; Nafarroa Behereko Baigorriin erabiltzen da: *nahi ukan balu*, esaterako, eta goiti, Heletan, Armendaritzen Izturitzen eta Aturrialdeko Bardoze-Beskoitzeetan ere bada egitura hau, Oztibarren, Landibarren edo Amikuzen bezala. Arbotiko *nahi ükhan balü* edo *ukhan tzit hatze-manik* adibide egokiak dira, Armendaritzeko *intzunik ukan dakot gizon bati bezainbat*.

7.51. Euskal Herriko mendebaleko eta erdialdeko mintzoetan ez bezala joka daitezke “bazkaldu”, “afaldu”, “ari”³⁰, “nahi” edo “mintzatu” aditzak Ipar Euskal Herrian. Nafarroa Behereko adibide batzuk bildu ditugu guk: *bazkalduko gira; jaten ai zutela* (Aldude 1911); *afaldia duka?; afaldia hiza?; Inxauspe mintzatzen dik* (Baigorri); *bazkaldu da* (Irisarri); *joan nahi bazen?* (Izturitze); *ortzantza ari delaik; joan behar zen* (Ezterenzubi); *ezpitzen joan nahi; afaldu hiza?* (Larزابale); *mintzatu diat* (Landibarre); *jaun mera elekatzen diat iande guziez* (Garruze); *etzüzün erre nahi* (Arboti). Aturrialdean ere antzera: *beharko niz juan; apheza igande oroz mintzatzen diat* (Bardoze); *aita mintzatu nahi nitek* (Beskoitze). Honi guztiari dagokionez ez dago alde handirik Lapurdiko barnealdera (Epelde 2003: 183-86).

7.52. Ohikotasun adiera hartu ohi du *johan* aditzak Nafarroa Beherean eta Lapurdin; ‘eraman’ adiera ere badu “joan”-ek bi herrialdeotan, bestalde. Beskoitzen, esaterako, *juan duk* burutua da eta *johan duk* egiturak ohikotasuna adierazten du. Hona ohikotasun balioa duten Bardozeko *johan*-en adibide batzuk: *merkhatura johan ginen Bastidat; denboran johan nintzan kola-kaan hartzeat; igande gizenaekin etxez etxe johan ziren maskatuik*. Izturitzeko hiru adibideotan ere nabarmena da: *haurra ikuzten zuten ur hartaik eta anhitzek ura johan zuten; kukia ordian johan da; mihimen gorria, barne butsa da, ahua beltza da, hau buhamiek ikus-ahala johan zuzten, zare iteko, primadean*. Armendaritzeko adibidea ere gardena da: *ditharia lurrera johan tzelaik ehitik, erten gindin denborak sanyatu behar tziila, erran hori bazen*. Baita Amoroitze-ko hau ere: *gu, oihanetik Mehainea johan ginen*.

7.53. Aditz laguntzaileari dagokionez, **eradun* erroitikako adizkiak Nafarroa Behere guztian erabiltzen direla aipa daiteke, nahiz Bidarra, Orzaize, Aldude eta Baigorriko datuen artean *diot*, *dio*, *diou*, *diote* edo *zion* ere ageri diren, beti ere, *dautzut*, *zakon*, *daukute*, *dakogu* eta horiekin batean. Lapurdiko barnealdean ere **eradun*-etik eratorriak ibiltzen dira, baina datiboa hirugarren pertsona delarik, litekeena da *dio*, *zioin* ‘zion’ sailekoak ere erabiltzea.

³⁰ Lapurdiko ekialdean nahiz barnealdean ere “ari + aditz iragankorra” egitura erabiltzen da.

7.54. Ahala adierazteko **ezan* eta **iro* erroetarik eratu adizki laguntzaileak erabiltzen dira Nafarroa Beherean; izanen dira aldeak eremu batetik bestera erabilera maiztasunean, baina **iro* erroetik eratuak bederen, Nafarroa Behere guztian ageri direla adierazi behar da: Baigorriin, Arberoa-Iholdi alderdian, Amikuzen, Oztibarren, Landibarren eta Garazin ditugu eta baita Lapurdiko Aturrialdean Bardozen eta Beskoitzen ere; erdialdean ere ageri dira (Epelde 2003: 308).

7.55. Berebat, *niz*, *hiz*, *zira*, *xira* edo *gira* adizkiak ditugu Nafarroa Behere guztian Nor aditz sailean (Bidarrain edo Heletan, ordea, *naiz*, *haiz* saileko adibideak bildu dira *niz*, *hiz*-ekin batera) eta bestalde, *nu*, *gitu*, *zitu* erakoak Nor Nork sailean; baita Lapurdi barnealdean ere: *niz* & *naiz*, *zi(r)a*, *gi(r)a*, *nu*, *zitu*, *gitu* (Larresoro).

7.56. Nor aditz sailean, iraganean, *nintzan* / *zen* binomioa Nafarroa Behere guztikoa da: Bidarrain *nintzen* dugu, baina Alduden *nintzan* & *nintzen*; oro har, *nintzan*, Baigorriin, Heletan, Armendaritzen, Ezterenzubin, Gamarten, Larzabalen, Jutsin (*nintzela*-rekin batean), Landibarren, Oragarren, Arrutan, Donapaleun eta Arbotin ageri da, besteak beste. Zuberoan ere *nintzan* erabiltzen da. Lapurdi barnealdean *nintzen* erabiltzen da; biderdi, Kanbon, *nintzen* & *nintzan* bildu dira eta Lekornen, Luhuson, Hazparden eta Makean *nintzan*, baina Larresoron, Uztaritzen edo Kanbon *nintzen*.

7.57. Nafarroa Behere guztian *-te* da hirugarren pertsona pluraleko atzizki egilea adizkietan; *-e* morfema aditz etikoetan erabiltzen da. Amikuzetik eskuin, Zuberoako Etxarrin, *düte* eta *die*, biak ageri dira (Irizar 2002: 246). Lapurdin ere honela da.

7.58. Lapurdin bezala, aditz trinkoek iraganean *-a-* daramate nagusiki Nafarroa Behere guztian: *zaun* ‘zegoen’ (Baigorri), *zailtzan* ‘zebiltzan’ (Irisarri), *etzakiten* (Heleta), *zakien* (Ezterenzubi), *zagon* (Jutsi), *banakiziün*, *banakian*, *bazakiziün* (Arboti); Aturrialdeko Bardozen ere bai: *bazazkiten*. Halaz ere salbuespenak aurki daitezke: *bazekiten* (Jutsi).

7.59. Nor Nori aditz saileko laguntzaileetan *-au-* diptongoa nagusitzen da Nafarroa Behere guztian. Baigorriin, Arberoa-Iholdi alderdian, Garazin, Oztibarren edo Amikuzen. Baigorrialdean eta Arberoan, ordea, Alduden, Baigorri herrian eta Donamartirin hain zuzen, *zait* ere ageri zaigu datuetan; Donamartirin *zaut* & *zait*, *zautzu* & *zaitzu*, *zauku* & *zaiku* ditugu. Garazin eta Baigorriin *zaut* > *zaat* ‘zait’ asimilazioa ere gertatu da, baina *zauzu* da herri horietako adizkia bigarren pertsona datiboan. Oztibarreko Jutsin ere, *zaut* & *zaat* ‘zait’ bildu dira (EHHA), baina Irizarrek ez dakar *zaat* baizik. Lapurdi barnealdean ere bada *au* diptongoa adizkiotan, esaterako Larresoron, Zuraiden, Uztaritzen.

7.60. Hirugarren pertsonaren datiboko morfema *-ko* da Nafarroa Behere guztian: *zako* & *zaio* ‘zaio’ bildu dira Bidarrain, *zako* & *zaiko* ageri da Alduden eta *zako* dago Baigorriin ere; Arberoa-Iholdi alderdian, Oztibarren, Garazin eta Amikuzen ere *zako* erabiltzen da; Hazparden eta Makean *zako* & *dako*³¹; Aturrialdean ere *zako* dugu Bardoze-Beskoitzeetan; Lapurdiko barnealdean ez da berria *zako* eta *zaio* aldaeren arteko lehia (Epelde 2003: 135).

³¹ Nor Nori aditz saileko *z-* / *d-* txandaketaz, ikus artikulua honetako 5.5. azpitatala.

7.61. Lapurdin bezala, Nor Nori sailaren iraganeko adizkietan, oraineko formetan oinarriturik analogia orokorra gertatu da Nafarroa Beherean; aldaera zahar ez analogikoez ere bizirik diraute, baina aldaera berriak³² ere ausarki ageri dira: *zeen* ‘zitzaian’, *zautan* / *zitzautan* (Baigorri), *zaten* ‘zitzaidan’, *zakon* ‘zitzaion’ (Heleta, Iholdi), *zazkon* ‘zitzaizkion’ (Izturitze, Armendaritze), *zautzun* / *zitzautzularik*, *zitzaikon* (Armendaritze), *zitzaikon* (Arnegi), *zien* ‘zitzaian’, *zakon*, *zazkolaik* / *zitzautan*, *zitzaun* ‘zitzaigun’ (Ezterenzubi), *zeen* (Larزابale), *zitzautan* (Jutsi), *zizatazun* ‘zitzaidan’ zuketan (Landibarre), *gelditu zakon*, *jin tzakola* (Oragarre), *zauzun* / *zitzauziun* (Gabadi), *zautan*, *zizakon* (Arboti). Aturrialdean ere antzera gertatzen da: *zautan*, *zaukun* (Bardoze).

Analogiaren indarra beste sailetara ere iragan da: Nor aditz sailean Bardozen *nüxiun* ‘ninduxun’ dugu eta Gabadin *zizten* / *zindizten* ‘zineten’. Nor Nork aditz sailean analogiak *huntan* / *hinduan* ‘hindudan’ bikoizketa eragin du Gabadin. Nor Nori Nork iraganean, Beskoitzen zuk eni *zatazun* bildu zuen Trebitsch-ek 1913an, baina Bonapartek eta Duhauk, berriz, *zinautan* dakarte.

7.62. Pluralaren ingurunean agertzearen oihartzunez, *n* pleonastikoa hedatu da osagarri zuzena plurala eta egilea lehen pertsona singularra duten Nor Nork aditz saileko adizki batzuetara Nafarroa Beherean eta Lapurdiko Aturrialdean: *nintiin* ‘nituen’ (Banka, Baigorri); *nintien* ‘nituen’ (Eiheralarre); *nintien* (Larزابale); *nintin* (Irisarri); *ikusiak bainintuen* (Donamartiri); *nintien* (Donapaleu); *nitien* & *nintien*, *hitien* & *hintien*, *nitian* & *nintian* (Behauze); *nintien*, *nintian*, *nintinan*, *nintzin* (Gabadi); *maite nintzin horiek* (Arruta). Aturrialdean ere berdin da: *iten nintiela* (Bardoze); *nintiin*, *hintiin*, *banintu*, *bahintu* (Beskoitze). Lapurdiko barnealdean, *hintuin* eta *banintu* ditugu, baina lehen pertsonan *nituin*. Hazparnealdean badira *nintiin* erakoak.

7.63. Aginte adizkietan arrunta da laburdura gertatzea eta morfema txistukaria, “*ezan”-i dagokiona, galdu izana: *igorrak* (Bidarra), *atxikan*, *itzulazu* (Aldude), *emakok* (Baigorri), *igorrak* & *igor zak*, *emok* & *emakok* (Irisarri), *emakok* (Larزابale), *aurdikak* (Garruze). Lapurdiko barnealdean ere badira adibideak: *erosak* (Epelde 2003: 152). Aturrialdeko Bardozen ere hala da: *emakok*, *emok*, *errazu*. Beskoitzen ere bada eskema hau (*aurdikak*, *bilak*, *kenak*, *emak*, *ikusak*, *ikasak*, *josak*), baina femeninoaren sisteman gauzak aldatzen dira herri honetan: *igorna*, *ekarna*, *erabilna*.

7.64. Menpekotasun atizkiak hartzen dituzten aditz laguntzaileetan, aldaera herskariak ageri dira igurzkari zaharragoen ordain analogiaz: *ukan* ‘duan’, *zautana* ‘zaidana’, *dukala* (Baigorri); *dukan* (Izturitze); *eztukala* (Garmarte); *dukalaik* (Larزابale); *dukan*, *dezakan* (Jutsi); *dutala* (Landibarre); *dukan* (Arboti). Aturrialdeko Bardozen ere hala da: *dukan*; Lekornen ere berdin: *dutana* (Vinson 1911). Halaz ere, badira aldaera igurzkari batzuk: *duan* & *eztuan* ‘dudan’ (Aldude 1911), *dudalarik* (Armendaritze), *duana* ‘dudana’ (Arboti); Luzaiden *duan* & *dutan* bildu da (Salaberi & Kamino 2001: 194). Badira, azkenik, analogikoak diruditen beste aldaera batzuk ere: *nikan* ‘nian’, *zukan* ‘zuan’ (Larزابale); *nikan* (Landibarre); *zukan*, *zikan* ‘zian’, *ginikan* ‘genian’, *nian* & *nikan* ‘nian’, *zian* & *zikan* ‘zian’ (Arboti). Nafarroa Beherean zenbait lekutan arrunta da txandaketa³³: *neeian* & *neekan* ‘nieran’ (Armenda-

³² Berriak diogu, baina Tartasek berak badakartza: *çautan* ‘zitzaidan’ (Darricarrère 1911: 31).

³³ Bonapartek eta Casenavek *nikan* dakarte Garaziko Suhuskunen eta 1974an ere halaxe bildu da, baina Koldo Artolak *nian* bildu du.

ritze); *zian* & *zikan* (Ibarla); *nian* & *nikan* (Uharte-Garazi); *nezteeian* & *nezteeikan* ‘nizkiean’ (Banka); *zian* & *zikan* & *zukan* ‘zuan’ (Baigorrialdea). Hazparnealdean eta Itsasun *nian* & *nikan* pareta dugu, baina Ezpeletan, Zuraiden eta Larresoron, *nian*, *zian* erak.

7.65. Sintaxiaren barrenean, “aditz laguntzailea + aditz nagusia” egitura hanpatzailea aipa daiteke, Nafarroa Behere guztia batzen duena: Baigorri, Arberoa-Iholdi alderdian, Landibarren, Amikuzen, Oztibarren eta Garazin adibide franko aurki daiteke; ondoko Lapurdin, Bardozen, Makean nahiz Hazparnen ageri dira eta Irantzu Epeldek Lapurdiko barnealdean ere bildu ditu. Adibide zenbait ikus daiteke: *ordion tzien jin* (Bidarrai), *ta mekanikak du gizona ibiltzen* (Orzaize), *hortako dautzut erten ene arbasoen denborakoa dela* (Heleta), *hak dik oiloa harrapatzen* (Armendaritze), *negian zen iten* (Izturitze), *axuriaindako da erten igundu dela* (Arnegi), *bazkak dizi iten hori* (Larزابale), *horiek oro ixtorio berak titzie kondatzen; zeen ta hoi duzu gertatzen* (Oragarre).

7.66. Hanpaturikako *ere*-ren erabilera aipagarria da: Nafarroa Garaian bada, Aezkoan, Joakin Lizarragaren idazkietan...; Nafarroa Beherean ere hedaturik dago: *usatzen ere ala dugu ta* (Bidarrai); *emen ezkondu re dira, emen herrian* (Orzaize); *badira, sartzen ee bitzien leizer behera* (Armendaritze); *ba, denbora baik eta hartzen e dik denbora* (Izturitze); *gerthatü re düzü* (Arboti).

7.67. Izenordain zehaztugabea izateaz gain, determinatzailea ere bada *zeit* & *zerbait* Nafarroa Beherean eta izenaren eskuinean nahiz ezkerrean ageri da: bietan agertzeko aukera, gainera, herrialde guztikoa da, Baigorri, Garazi, Arberoa-Iholdi, Landibarre, Oztibarre eta Amikuzekoa³⁴. Adibide batzuk eman daitezke: *zeait trufa / mamutza zerbaitez* (Baigorri); *su zeit / zeit mamu* (Izturitze); *zeit zor / tratu txar zeit* (Larزابale); *zeit urreria aundi galdu* (Oragarre); *iaurgei zeitekin* ‘ihaurkin zenbaitekin’ / *zeit gizkeiekin* ‘goilara handiren batekin’ (Garruze). Lapurdiko ekialdean eta barnealdean ere berdin erabiltzen da (Epelde 2003: 303).

7.68. Bai / ez galderetan *-a* morfema erabili ohi da Nafarroa Behere guztian eta Aturrialdean; Irantzu Epeldek dioenez (2003: 214 eta 310), Lapurdiko Itsasun, Kanbon, Hazparnen, Makean, Lekornen eta Luhuson bederen ageri da; hona orain Nafarroa Behereko adibide batzuk: *badea Iratin?* (Baigorri); *sinesten duzia sorginetan tzuk?* (Heleta); *eztuzuia behin e jan?* (Izturitze); *Ibarlan dea?* (Larزابale); *dotzena bat urte badia?* ‘badu?’; *etziena belxikanoa?* ‘ez ote zuen belgikarra?’ (Oragarre); *emaztiak eztirea joaiten gizonen ondoat eta behar dütelaik?* (Arboti).

7.69. Zehargalderetako *-netz* (inoiz *-nez*) atzizkiaren erabilera arras hedatzen da Nafarroa Beherean; Lapurdin ere ageri da, Larresoro-Hazparne-Lekuine aldean bederen (Epelde 2003: 195 eta 311); Bardozen eta Beskoitzen ere adibide franko aurkitu ditugu datuetan. Hona Nafarroa Behereko adibideak: *banian berze zerbeiten atzemaitera horiekilako ahal duanetz* (Aldude); *eztakit jinen direnetz* (Baigorri); halaz ere, Baigorri adibide ugari ditugu *-(e)n* soila dutenak: *eta astoak galde ea utziko ziin meza aten entzutera* (Urepele), *mazteai erran zakon zaldia hea etzen etxeat jin* (Aldude), *eztakit hain aise erraiten den; den-denek eztakit egiten zuten; eztakit hala den; eztakit berdin di-*

³⁴ Iduria da *asko*, *frango*, *sobera* edo *zonbait*-en erabilera ere.

ren (Baigorri). Hona beste eskualdeak: *eztakit buluzgorriik joan tzenez* (Heleta), *hek erten zuten galdeiten zutela etxe hartan bazenetz pheldoik* (Armendaritze), *ezpitakit egia denetz* (Izturitze), *eztaizut 'ez dakit zuka' intzutia duzunez* (Gamarte), *eztaizut iten dienez makhurrik ala zer* (Landibarre), *murlantxa ari nuk ia anglez ardia denetz othe* (Arboti).

7.70. Ezaguna denez, aditz izenaren osagarri zuzena genitiboan joan daiteke Nafarroa Behere guztian eta Lapurdiko ondoko herrietan nahiz erdialdean ere hala da: Bardozen, Hazparnen edo Larresoron, esaterako. Zenbait aldiz, genitiboan dagoen izena aditzaren ondoren kokatzen da: *ikhusteat etxaldia in e* (Izturitze); *eztu nekhe itia horren* (Larزابale); *galdeitea sos puska aten* (Landibarre); *banakikek iten xedeen* (Arboti). Aturrialdean ere bada: *atzemaiteko karta hen* (Bardoze). Ez dugu Baigorriin hurrenkera hau sumatu: *haurren ekartzera*, baina Lapurdiko barnealdean bada (Epelde 2003: 211).

7.71. Korrelazioa moldatzen duten perpaus erlatiboetako “galdetzailea + ere + bait” egitura arras hedaturik dago Nafarroa Behere guztian: *nun biltzen baizen e* (Bidarra); *zoinek ee baitituzie* (Aldude); *nok ikusi beitu erlia eta nok biltzen, haina da erlia* (Irisarri); *nundik heldu bita xurrusta azkarrana, handik ezarri; nun e baita mehatzeat heldu* (Armendaritze); *noat e nahi duzu aurthiki* (Izturitze); *nun errun baitu, han jarriko da; nuntik jina baita, eta hango etxiain izena* (Ezterenzubi); *noat gidatzen baita re; tomate ta ze e bita legüma edozoinekin* (Gamarte); *zer eemaiten beitzuzu, hua; nun e ikhusten beitzuten* (Larزابale); *nor bita okupatu* (Jutsi); *ze bitzen ee; nori intzuten baitzuten, hua* (Landibarre); *zer e bita pian* (Garruze); *zonbat e bita; zer e heldü bita* (Arboti). Aturrialdean ere bada egitura hau: *zonbat e bituzu leku* (Bardoze); *nok ee ina bitziin; nun ee bita* (Beskoitze). Honelako adibideen honddar batzuk bildu ditu Epeldek Larresoron (2003: 199).

7.72. Perpaus erlatiboetan aditza atziki eta laguntzailerik gabe erabiltzea ere arrunta da Nafarroa Beherean, Hazparnen, Aturrialdean edo Aezkoan bezala. Hona Nafarroa Behereko adibide batzuk: *ene beharritz aitu ixtorio bat* (Baigorri); *eman guziak harzen* (Aldude); *ostoetaik erori ura* (Jutsi); *ikusi gauzeekin* (Garruze); *züik in lana garbitzen dautzite eta zalhüxkaik* (Arboti). Jean Barbier idazle donibandarrak ere bazerabiltzan honelakoak XX. mendearen hasieran: *aintzineko asteen huts egin erbi bat* (1987 [1924]: 75). Lapurdiko barnealdean ez da Hazparne aldean bezainbat erabiltzen (Epelde 2003: 311).

7.73. Lapurdin bezala Nafarroa Behere guztian erabiltzen da *bait* aurrizkia perpaus erlatiboak osatzeko: *han badira anitz etxe arto bezik ezpaitute egiten* (Orzaize).

7.74. Beste hainbat hizkeratan edota Lapurdin bezala, Nafarroa Beherean ohikoa da perpaus konpletibo batzuetako *-en* atzizkia, “uste izan” edo “iduritu” aditzekin, esaterako: Baigorriin, Arberoa-Iholdi alderdian, Garazin, Oztibarren eta Amikuzen erabiltzen da eta baita Aturrialdean ere; hona adibide batzuk: *uste dut eta zera den* (Bidarra); *eztut uste hemen holakoik gerthatu den* (Heleta); *eztut uste zurak handi-handiak eemaiten zuzten* (Ezterenzubi); *iduri zaut “marluza” erten den* (Jutsi); *uste izit biga bazuzten* (Landibarre); *etzaut iduitzen bera lotzen ahal den* (Garruze). Honelaxe da Lapurdiko barnealdean ere.

7.75. Ekialdeko hizkeretan ohi denez, ezezko adierazpen perpaus baten menpeko perpaus -*(e)la* atzizkia erabiltzen da: *enian uste hoin zozoa nintzela* (Baigorri), *eztu erran nahi uroso diela* (Orzaize), *enikan uste hain mentsa*

nintzala (Larزابale); *eztautziüt erraiten esnia anoa beno hobio dela* (Arboti). Aturrialdean ere antzera da: *enian uste hain zozoa nintzala* (Bardoze); baita Lapurdiko barnealdean ere (Epelde 2003: 311).

7.76. Kontaeraren ingurunean ageri zaigu “baizik eta” egitura Nafarroa Behereko euskaran, menpeko perpausaren aitzinetik; ez da soilik herrialde honetakoa, Lapurdiko Makean EAEL eta EHHA-ko emaitzetan ageri da eta I. Epeldek Uztaritzen adibide bat bildu du (2003: 194); berebat, Heletako eta Armendaritzeko egungo euskal idazleek ere erabiltzen dute egitura hau eta Nafarroa Garaiko Aezkoan ere ageri da. Guk hona Garaziko, Amikuzeko eta Bardoze adibideak dakartzagu: *gauazko istorio hori aitu izan dut, baizik eta gauaz suge hori airatzen zela eta sutan joaiten zela itsasorat* (Ezterenzubi); *lur arras ehakatzen ‘egan egiten’ dielaik... baizik eta euria heldu dela; erten dute bezik eta harma senditzen diela* (Arruta); *eta hak erraiten daut bezik e eztei handiak, eztei handiak ba* (Bardoze).

7.77. Kausa perpausetan *zeren & zen (eta)* partikula arras erabilia da Nafarroa Behere guztian: Baigorri, Arberoa-Iholdi alderdian, Landibarren, Amikuzen, Oztibarren eta Garazin; bada Aturrialdeko Bardozen ere. Hona Landibarreko adibide bat: *ungarriain ez kanpoat joaiteko edo hotzain negian beiratzeko, zen bortak bitzuten hola arteka...* Lapurdi barnealdean ere erabiltzen da: *zen ene senarrak nai luke in* (Epelde 2003: 336).

7.78. Nafarroa Beherean aski hedaturik dago kausazko *-lakoan* atzizki osatua, hainbat ibarretan ageri da: *ua lerrakor da ua, ... lurra aunitz uri ukanik, aunitz bustia delakoan, artan...* (Bidarrai); *etzutelakoan holakoik in nahi iltzen tziuzten apezak* (Heleta); *juan nuk ez zelakuan deus jatekorik* (Donamartiri); *urinekoak erraiten ginin, eztakit, leheno urinean ezartzen zelakoan* (Gamarte); *eta harri hua etzutelakoan hatzemaiten ahal, zugia ‘zubia’ oro barreatu* (Oragarre). Aturrialdeko Bardozen ere bada adibide franko eta Irantzu Epeldek Lapurdiko barnealdean nahiz Hazparnen bildu ditu adibideak (2003: 311).

7.79. Hainbat lekutan galdu den *edo / ala* bereizketari eusten zaio Nafarroa Beherean; Baigorri, Arberoa-Iholdi alderdian, Garazin, Oztibarren, Landibarren eta Amikuzen adibideak ageri dira; hona hiru adibide: *auri ala atheri* (Armendaritze); *gaur ala biar* (Oragarre); *beno ikhusten duzu gakhotik atxikitzen ahal dienetz ala ez* (Arruta). Lapurdiko barnealdean ere bereizten dira (Epelde 2003: 310-11).

7.80. Konparazio perpausetan “adjektiboa + *ago* + *ko*” egitura erabiltzen da Nafarroa Behere guztian: *saskia bezain haundiko xistera at* (Baigorri); *mundu hau bezain handiko ogi bat* (Aldude 1911); *horma fierragokoa da* (Aldude EHHA); *egur lodiooko atez* (Heleta); *arrañak handiagokoak tutzu* (Larزابale); *hunta beno ttipioko bat* (Landibarre); *apezilharra beno ttipiagoko ilhar bat* (Arruta); *hau beno handiagokoak* (Arboti). Aturrialdean ere bada: *handiooko bat; ahuloko bat* (Beskoitze) eta baita Lapurdi barnealdean ere (Epelde 2003: 204): *piaia ttipiaukoak ‘bidaia tikiagoak’* (336); ez da sistematikoa, ordea (98).

8. ONDORIO ZENBAIT

Ezaugarrien geografia-hedadura ikusirik, ondorio batzuk ateratzeko garaia iritsi da eta banaka-banaka zenbakitan emanen ditugu.

8.1. Amikuze alderdiak hainbat berrikuntza ageri ditu, hizkuntzaren aldetik eskualdea historikoki Zuberoari begira ere egon dela adierazten dute-

nak. Nafarroa Behereko eskualdea da Amikuze eta Nafarroa Behereko hizkuntza-ezaugarriak erabiltzen dira bertan nagusiki, baina badu berezitasunetan harko *plus* bat, Zuberoarekiko hartu-emanak eraginik edo. Nafarroa Behereko beste eskualdeetako hiztun arruntak ere ohartzen dira honetaz, ez da ezkutuko kontua. Junes Casenave-Harigilek ere antzera ikusi du gaia: hego-Amikuzeko eta hego-ekialdeko Amikuzeko euskara zuberotarra dela dio (1983: 8). Berebat, hondarreko bere lanean, Zuberoari begira ere badagoen zubi hizkeratzat hartu du Amikuzekoa Koldo Zuazok nafar-lapurteraren barrenean (2003: 148-49).

Hizkera honen barrenean administrazioz Zuberoa diren herri batzuk kokatu ohi dira: Lohitzüne, Arüe-Ithorrotze-Olhaibi, Domintxaine-Berroeta eta Etxarri; zenbaiten ustez baita Oihergi eta Pagola ere. Herri hauek guztiak, Zuberoa herrialdean daude, baina beren kantonamendua Donapaleukoa da. Koldo Artolak zubererarekiko muga Lohitzüne herritik Oihergira bitartekoa dela dio, bigarren herrian zuberera *phürra* egiten dela (Irizar 2002: 128). Aztertzeo geratzen da, bestalde, ea egia ote den Amikuzeren barrenean hizkuntzaren aldetik mikro-eremu ugari dagoela; cf. Guiter (1973: 103).

8.2. Lapurdiko Aturrialdeko Bardozeke euskara ere, Amikuzekoa bezainbat hurbiltzen zaio Zuberoakoari eta beraz, Amikuzeko euskararen barrenean dakusagu guk oro har; aldiz, Beskoitzeko euskara, Amikuzekoarekin lotura duen arren, ezin ahantzi dugu hainbat ezaugarritan Lapurdiko mintzora ere lerratzen dela: *-ua* > *-uia*, Bardozen baino palatalizazio gutiago izatea, *beze* 'bertze' erako kontsonante multzoa, erakusleen eta izenordain hanpatuen saila, *nehor* eta ez ***nihor*, muga adlatiboko *-raino* atzizkia, edute genitiboko *-aan*, ***xet*, ***etxen*, *-eri* datibo plurala, *-tzat* destinatiboa, *-rikan* atzizki pleonastikoa, *zakote* 'zaie', *zankon* 'zion', *zie* 'zara' & *xie* 'xara' & *gie* 'gara' Nor aditz sailean...; guk ez dugu Beskoitzeko mintzoa Amikuzekoarekin batera sailkatzekoa ikusten, nahiz Nafarroa Behereko euskararen eite handia duen.

8.3. Baigorriko hizkerak Euskal Herriko erdialdeko hizkuntza-joeren eragina biltzen du mendebaletik eta baita Lapurdiko mintzo orokorrarena ere; bestalde, aztergai gelditzen da Baztango, Esteribarko eta Erroibarko hizkerak Baigorrikoarekin eduki dezaketan lotura. Egia esan, hegoaldeko Aezkoarekin alderaturik, Ipar Euskal Herrian hizkuntzaz aetzen eremurik berdinen Baigorri dela pentsatzen jarraitzen dugu, Garaziko *eskuara* baino areago; arrazoi historikoak eskaini beharko lirakeke maparen aitzinean harrigarri dirudien gertakari hau argitzeko, hurbilago baitago Aezkoatik Garazi, Baigorri baino.

Nafarroa Behere guztian osoki gauzatu ez den *erorten* > *erortzen* erako berrikuntzan Baigorriko euskara berritzailea da, Nafarroa Garaiko auzoko ibarrrak bezainbat gainera; Baigorriin, bestalde, *etxean* dugu, ez ***etxen*, baina ez da aise hau berrikuntza ote den jakitea. Baditu Baigorriko euskarak bere-bereak diren berrikuntzak adizkietan ere, 4.13., 4.14., 4.15. eta 4.16.-en ikusi dugunez. Nabarmena da, bestalde, Nafarroa Beherean gairu gertatu diren edo hedatu diren bost berrikuntza falta ditugula Baigorriin: ***bi(t)*, ***lat*, ***xet* & ***xetan*, ***ginen* > *ginden* eta zuketarik eta xuketarik eza ditugu Baigorriin; hizkuntzaren aldetik gordetzaileagoa izan da Baigorri ibarra eta dinamika bakartuagoan iraun du: Nafarroa Behereko euskara orokorrarekin alderatuz gero, jokabide gordetzaileagoa izan du. Baigorriin ez baita zuketan edo xuketan mintzatzen, Bonapartek mendebaleko behe-nafarreran sartu zuen eta Koldo Zuazok nafar-lapurteraren erdiguneko azpi-euskalkian. Halaz guztiz ere, arestiko zortzi ezaugarri horiez landa, Baigorriko euskara Nafarroa Be-

hereko mintzo orokorretik bereizteko beste bost arrazoi gehiago ere badirela erakutsi dugu laugarren atalean, kategorizazioan denak berrikuntzak ez izanik ere. Nafarroa Beherean bederen, zuketaren eta xuketaren eremua hizkuntza-ezaugarri gehiagorekin ere geolinguistikoki koherentea dela ikusi dugu saio honetako laugarren atalean: zuketa-xuketa falta den eremuan ezaugarri berritzaile batzuk falta dira eta zuketa-xuketa egiten den tokietan, berrikuntza-eremu bat sortzen da.

8.4. Hizkuntza-batasun gehien ageri den alderdia Nafarroa Behereko erdigunea eta hego-ekialdea da, hain zuzen ere kanpoko eraginatarik babes gehien duena; hori da Garazin gertatzen dena: mendiek bereizten dute zuberotarrendik eta hegoaldeko aetzengandik; berdin esan daiteke Oztibarrez ere. Iholdiko kantonamenduko herri gehienetako eta Landibarre alderdiko euskara ere, Nafarroa Behereko hizkera orokor horretan dakusagu guk. Hartara, Garazin, Oztibarren eta Iholdiko kantonamenduko herri gehienetan ageri zaigu Nafarroa Behereko hizkerarik berdina, orokorrena, batasun maila gehienekoa. Ez bedi ahantz, Baigorri eta Amikuze ere partaide diren laurogeita hamazazpi ezaugarri bateratzaile aurkeztu ditugula artikulu honetan: ez dira guti eta halako batasun itxura ematen diote Nafarroa Behereko euskarari.

Nafarroa Behereak dituen 1374 km²-etarik, bazter ditzagun alde batetik Baigorrialdea eta joera orokorrekiko bere saihesteak, eta bestetik Amikuze, bere berrikuntza eta espezifikotasunekin. Har dezagun Gipuzkoa bat, bere 1813 km²-ekin. Hedadura gehiago du Nafarroa Behereak baino; halaz ere, ezin pentsa daiteke Irunek, Donostiak, Hernanik, Tolosak, Azpeitiak, Ordiziak, Bergarak, Arrasatek edo Eibarrek Gipuzkoan izan duten gizarte eta salerosgo-gune eginkizun hori, Nafarroa Behereko laborari-gizartean, Bastidak, Donapaleuk, Garruzek, Donibanek, Baigorrik, Heletak edo Lapurdiko Hazparnek izan ez dutenik. 500 km²-ko aldea alde, Deba ibarrik gabeko Gipuzkoan hizkuntza-batasun maila gutiago dago Baigorriarik eta Amikuzerik gabeko Nafarroa Beherean baino. Erreterria, Hernani, Tolosa, Berastegi, Ataun, Deba, Azpeitia, Zarautz, Donostia ingurua osatzen badugu ez ditugu laurogeita hamazazpi ezaugarri berdin edo berdintsu aurkituko, baina Nafarroa Beherean bai, Amikuze eta Baigorri barne direla gainera; hizkuntza-batasun maila handiagoa du Behorlegi, Jutsi, Landibarre, Mehaine, Iholdi, Suhuskune, Donibane, Ezterenzubi inguruak Gipuzkoako arestikoak baino.

8.5. Arberoako mendebaleko herrietan, Lapurdiko ekialdeko herrietan aurkitzen ditugun aldaerak erabiltzen dira, bosgarren atalean ikusi dugunez: zortzi ezaugarritan bederen, hori sumatu dugu. Makeako eta Hazparne alderdiko euskararekin bat doaz ezaugarriotan Aiherra eta Izturitzeko mintzokak. Eremu hau ongi aztertzea da oraino, baina garbi ageri zaigu, Hazparneko eta Makea alderdiko hizkerekin loturak izanik ere, Nafarroa Behereko ezaugarri orokorrenak badirela Aiherra eta Izturitzeko mintzoan. Emile Larrek ikuspegi klasikoaren ildotik dioenez, Aiherrako euskara baxenabartarra da, baina hazpandar kolore batekin (1980: 68). Aiherrak, bestalde, ekonomian hartu-eman sakona izan du Hazparnerekin eta elizaz, Aiherrako zati bat Lekorneko Gerezieta auzoari lotua da. Bonapartek berak bere hirugarren sailkapenean, Aiherrako euskara, Hazparne, Lekorne, Makea, Luhuso eta Lekuinekoarekin batera bildu zuen.

Antzina Arberoatik bereizi zuten Bastida herriko euskaraz ez dezakegu gauza handirik esan; gure ezagutza EHHA-ko lekuko baten mintzora mu-

gatzen da eta ez du Bastidako euskara ordezkutzen. Bastida eremu kaskoina da eta euskara ez da hizkuntza arrunta; ez dago, gainera, Bastidako bereko jatorrizko euskararik³⁵.

8.6. Arestiko azpiatalak guharen buruari galdezka jarrarazten gaitu: Arberoako mendebaleko euskaratik Hazparne eta Makea alderdikora mugarik ba ote da? Lotura franko dela ikusi dugu bosgarren atalean eta Nafarroa Behereko Arberoako hiru herri, zortzi ezaugarritan bederen, beren kide nafarretarik saihesten direla ere ohartu gara; ez dago zalantzarik ongi aztertu beharreko eremua dela eta Irantzu Epeldek ere halaxe aholkatzen du bere tesian (2003: 324).

Artean, eskuartean ditugun datuak baliatuz aspaldiko galdera bat berri-zeko aukeran gaudela uste dugu. Lapurdik eta Nafarroa Behereak bakoitzak bere euskalkia dutela esaten denean, zer da dialektologiaren argudio tekniko-teorikoak zehatz erabilirik adierazi nahi dena? Batak eta besteak eksklusiboak diren eta bakoitzaren eremu guztian erabiltzen diren ezaugarri bereizle ugari dituztela? Ez dirudi hori egia denik. Froga gisa lau arrazoin eman ditzakegu, gehiago ere izanen direla jabeturik.

1) Saio honetan ikusi dugu Nafarroa Behereari batasuna ematen dioten laurogeita hamazazpi ezaugarri gutienez badirela eta horietarik laurogei, Lapurdiko euskararekin alderatu ditugu zazpigarren atalean: laurogei ezaugarri horietarik gehienak, Lapurdin ere erabiltzen direla ikusi dugu; honek ez du Lapurdik eta Nafarroa Behereak euskalki bana dutela dioen teoria deusetan laguntzen. Gainerateko hamazazpi ezaugarriak Nafarroa Behereko euskara barrenetik alderatzeko erabili ditugu, ez da ulertu behar hamazazpi ezaugarri horietan Nafarroa Behereko eta Lapurdiko euskara zein bere bidetik doazetik. 2) Lapurdiko ekialdeko hizkerak, Hazparnealdekoak, Nafarroa Behereko mendebaleko hizkerekin aski baturik ageri dira: artikulu honetan guztian ikusi da hori Izturitzeko edo Aiherrako ezaugarriak Makeako eta Hazparnekoekin alderatu ditugularik. 3) Nafarroa Behereko mendebaleko hizkerak, Arberoakoak, ez dira Nafarroa Behereko hizkeren multzo orokorretik anitz bereizten: zortzi ezaugarritan saihesten dira, baina ezaugarri andana batean elkarrekin doaz eta beraz, aski koherenteak dira Nafarroa Behereko mintzo orokorrarekiko. 4) Jauzi lektal mailakatua dago Hazparnealdetik Lapurdiko barnealdera, alderdi bata eta bestea lotzen dituzten ezaugarriak gehiago dira bereizten dituztenak baino, nahiz Irantzu Epeldek erakutsi duen, Lapurdiko barnealdeko euskara, zehazki Larresoro alderdikoa eta hego-ekialdekoa, Hazparne ingurukoa, ez direla bat eta bera: bada aldea mintzo batetik bestera, jauzia sumatzen da Kanbo-Itsasu aldean (2003: 327), baina jauzi mailakatua da.

Gure zazpigarren ataleko alderatzeak erakutsi du Nafarroa Behereko euskara ez dela soilik Hazparne aldeko mintzoarekin lotzen, Lapurdiko barnealdekoarekin ere batasunean ageri da, ez dago jauzi bortitzik eskuinetik ezkerre; ulertzekoa denez, Hazparnekoa gehiago lotzen zaio Nafarroa Beherekoari, Larresoro alderdikoa baino; horrek, ordea, ez du adierazten Larresoro-koa eta Nafarroa Beherekoa loturarik gabeko bi talde direnik. Arberoatik La-

³⁵ Berriemaile bastidarrak, gainera, aita hazpandarra zuen eta ama bastidarra, baina euskaraz ez zekienez. Senarra bardoztarra zuen lekuko honek eta hogeita zortzi urte eman zituzten Peyrehoraden bitartean. Bastidak Hazparnekin lan-harreman hertsia izan du (Haase 1994: 176).

rresorero alderdira jauzi sakonik ez baldin badago eta Arberoko mintzoa Nafarroa Beherekoan ongi egokiturik baldin badago, mintzo batetik bestera dialekto-jauzirik ez dagoelako ikuspegia gailentzen dela iruditu lekiguke eta hartara, Lapurdiko euskara eta Nafarroa Beherekoa euskalki bereko atalak direla; iritzi hau bera jaulki du saio honetan usu aipatu dugun Irantzu Epelde ikertzaileak ere (2003: 330), Henri Guiter-ek (1973) eta berriki Koldo Zuzok (1998 eta 2003) eman iritziaren ezpal beretik, baina berak aurkitu arrazoi berriak baliaturik.

Biarnorekin eta Zuberoarekin izan duen hartu-eman garrantzizkoa izanik ere, Nafarroa Behereko gizarteak Baionara bidean dagoen Lapurdirekin eta Iruñera bidean dagoen Nafarroa Garaiarekin izan ditu Erdi Aroan bere salerosgo-harreman nagusienak, bi hiri horietan eta Donibane-Garazin janariaren aldioroko premia baitzegoen biztanleen aldetik (Esarte 1983: 42). Honelako berriak gizataldeen iraganaren ondorio diren hizkuntza-ezaugarrien hedaduraren gaiarekin uztartzekoak dira inolaz ere, euskalkien ageriko aurregiarekin ezinbestean elkaturik ageri baitzaizkigu.

8.7. Dialektoak teknikoki eta metodologikoki eratzeko gehien komeni den ikuspegia aurkitzea da hemen kokka: muga lektal nabarmenik ez aurkitzekotan, hizkeren *continuum*-a dialekto beraren barrenera biltzea aholkatzen duen ikuspegia dago batetik: dialekto bat definitu ahal izateko, eremu guttian gaindi erabiltzen diren ezaugarri eskusibo zenbaiten premia aldarrikatzen duena. Beste alderdian, espezifikotasuna edo eskusibotasuna hizkuntza-ezaugarrietan bilatu beharrean, ezaugarrien konbinazioan bilatzen duen ikuspegia genuke. Erdiguneko hizkeretarako zein den egokiagoa 2002an galdegiten genuen, eta Gipuzkoa gehieneko eta Nafarroako ipar-mendebaleko mintzoen adibidea ematen, ez baita aise ikusten erdialdekoa deitzen den euskalkiak zein ezaugarri berezko edo espezifikoki dituen; muga batetik bestera alde handia ageri da Mutriikutik Imotzeraino eta ezaugarri eskusibo guti ageri da euskalki horretan.

Nafarroa Beherean bada ezaugarrien konbinazio eskusibo litekeen bat, adibide huts gisa aurkez daitekena, saio honen hasieran iraztean bezala ikusia: *noit* 'nor bait' edo *zeit* 'zer bait' erako laburdura zenbaiten erabilera, *duen* > *diin* bezalako asimilazioak adizkietan, *bait* > *bit* monoptongazioa, *hantik* 'handik' & *heentik* 'hegendik' aldaerak, *elgar* izenordaina, *intzun* 'entzun' aldaera, *niz* 'naiz', *nintzan* 'nintzen', *zako* 'zaio' eta *dako* 'dio' aditz laguntzaileen konbinazioa, zuketaren nahiz xuketaren erabilera... Aski arrazoa ote da ezaugarri horien konbinazio eskusiboa, horrenbeste garrantzi eman ote da kieke eskusiboak ez diren ezaugarri horiei, konbinazio eskusibo horri, Nafarroa Beherean oro har euskalki bat mintzo dela adierazi ahal izateko? Batzuek orain artean horrela ikusi dute auzia, baina guk ilun dakusagu; bereziki zail dakusagu, ezaugarrien konbinazioen sailak ugaltzeko eta dialekto "berriak" eratzeko baldintza matematikoetan baino gehiago, irizpide kualitatiboetan sakondu beharko genukeela uste dugulako.

Aiseago ohartzen da bat, Arbati-Zohotatik Hendaiarainoko bidea elemeniako jauzi edo etenik jasan gabarik egin daitekeela, baldin ikasten bada patar gorak saihestuko dituzten iraganbide erosoagoak aurkitzen; hiztunek eta hizkuntza-gizataldeek ere berdin egiten dute, biderdi joaten dira bata bestearengana, norberaren hizkuntza-ezaugarrien multzotik bestearenera, baratxe-baratxe, konpromisoko konponbide bitartekariak sortuz, Armendaritzeko

-aan & -ain > -ain adibidean gertatu bezala. Geografia soilak gure oharren metalinguistikoa eragiten duen ikuspegi desitxuratzaila, hiztunen jokabide lektal harrigarri eta miresgarriak argitu lezake usu, baina horretatik ez da jarraitzen, dialektoak banatzeko jarduna zailtasunik eta behaztoparik gabeko eremu zelaia denik. Esaterako, *entzun* / *intzun* txandaketaren eremua ezar daiteke adibidetzat: lehen aldaera Baigorriin dugu eta bigarrena Garazin, Oztibarren eta Landibarren; *entzun* eta *intzun*, bi aldaerak, Bardozen, Arberoa-Iholdi alderdian eta Amikuzen erabiltzen dira eta gainera, bada *entzun* Garaziko iparraldean ere; irudi konplexua zinez isoglosak baliaturik eremuak banatu eta finkatu nahi dituenarentzat: bera formalizatu nahi luketen eginahalak baino, errealitatea aberatsagoa izaki!

Guhauren aldetik, dialektologia egitean zaindu beharreko irizpide zehatz batzuen berri eman dugu berriki (Camino 2004: 45-49), dialektoak banatzeko jarduna argitu bederen egin lezaketanak, baldintza guztiak asetzeari beti aise ez bada ere: ezaugarrien eskusibotasuna, geografiaren iragazkia, hizkuntza-ezaugarrien hedaduraren zabaltasuna, kronologiaren baldintza, ezaugarrien sistematikotasuna eta ezaugarrien fidagarritasuna xeheki argitzea eta ezaugarriak berrikuntza, arkaismoa ala hautua diren ahalaz ongi bereiztea, mesedegarri da, inolaz ere. Irizpide hauek zaintzeak edo erabiltzeak ez du adierazten orain artean neke izan dena erraztuko denik, baina aitzinatzen lagunduko gaitu, oraino ezagutzen ez ditugun Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako mintzo batzuk biltzeak eta alderatzeak lagunduko gaituen bezala.

BIBLIOGRAFIA

- ALBERDI, J., 1996, *Euskararen tratamenduak: erabilera*, Iker 9, Euskaltzaindia, Bilbo.
- ALLIÈRES, J., 1977 & 1986, "Petit atlas linguistique basque français "Bourciez" (I eta II), *FLV* 27, 353-386 eta 47, 5-45.
- ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA, 1984-1990, *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa* [EAEL], Donostia.
- BARANDIARAN, J. M., 1982-83, "Materiales para un estudio del Pueblo Vasco en Urepel. Año 1948", *Anuario de Eusko Folklore* 31, 9-30.
- BARBIER, J., 1987 [1924], *Supazter xokoan*, Klasikoak saila 16, Euskal Editoreen Elkarte, Itxaropena, Zarautz.
- CAMINO, I., 1987, "Nafarrera beheera", in *Euskal Dialektologiaren Hastapenak*, 2. argit., UEU, Bilbo, 313-426.
- , 1988, "Euskara batuak 20 urte bete ditu, baina... batuak batu ote?", *Euskal Kulturaren Urtekarria 1988*, Argia, Donostia, 161-191.
- , 2002, "Euskal Dialektologia (II)", *Koldo Mitxelena eta euskalaritzaren garapena azken mende erdian* izeneko EHUko uda ikastaroan eman hitzaldia, Donostia, 2002/VIII/24, 11 or.
- , 2004, "Irizpide metodologikoak egungo Euskal Dialektologian", *Euskera* 49/1, 37-72.
- CASENAVE-HARIGILE, J., 1983, *Amikuze*. Ikastola liburutegia. Geografia saila 8, Gordailu, Donostia.
- CERQUAND, J. F., 1985, *Ipar Euskal Herriko legenda eta ipuinak*, Anuntxi Arana (arg.), Txertoa, Donostia.
- DARRICARRÈRE, J. B., 1911, "Le livre basque intitulé: *Onsa hilceco bidia*", *RIEV* 5, 14-46.
- DUHAU, H., 1993, *Hasian hasi. Beskoitzeko euskara*, Alinea, Donibane-Lohizune.
- , 2003, *Hasian hasi. Beskoitzeko Euskara (Beskoitzeko Heskua)*, Euskal Kultur Erakundea & Beskoitze, Donibane-Lohizune.
- DUNY PÉTRÉ, P., 1959, "Trois textes folkloriques basques de Basse-Navarre Orientale", *BAP* 15/1, 47-60.
- EPELDE, I., 2003, *Larresoroko euskara*, Gasteiz, EHU-ko tesi argitaragabea.

- ESARTE, P., 1983, *Alduide, corazón de Navarra*, Elizondo.
- ESTORNÉS LASA, J., 1985, "Zoilo'ren uzta. La cosecha de Zoilo", *FLV* 45, 31-93.
- ETXEBARRIA, J. M., 1994, "Las grabaciones de Viena en euskera. Bajo navarro occidental y bajo navarro oriental", *Mundaiz* 47, 45-75.
- ETXEPARE, J., 1984, *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. I. Euskal gaiak*, P. Xarritton (arg.), Elkar, Donostia.
- GUI TER, H., 1973, "Atlas et frontières linguistiques", in G. Straka & P. Gardette (arg.), *Les dialectes romans de France à la lumière des atlas régionaux. Col. de Strasbourg, 1971*, Paris, 61-109.
- HAASE, M., 1990, "Erdal hitzen mailegatzea Iparraldeko euskaraz", *Euskera* 35/2, 405-415.
- , 1994, "Amikuzera", in R. Gómez & J. A. Lakarra (arg.), *Euskal Dialektologiako Kongresua*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 173-187.
- HARITXELHAR, J., 1963, "Textes folkloriques de la vallée de Baigorri", *Actas del Tercer Congreso Internacional de Estudios Pirenaicos*, CSIC, Zaragoza, 51-73.
- IÑIGO, P., SALABERRI, P. & ZUBIRI, J. J., 1995, "-ki aditz-atzizkiaren gainean", *FLV* 69, 243-295.
- IRIZAR, P., 1999-2002, *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro oriental (I, II, III)*, EHU & Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 1999b, *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro occidental*, EHU & Euskaltzaindia, Bilbo.
- LACOMBE, G., 1971-72, "Notes sur le basque des Aldudes. Noms de maisons, mots et récits populaires" [J. M. Barandiaran arg.], *Anuario de Eusko Folklore* 24, 25-44.
- LARRE, E., 1980, *Aiherra. Nafarroaren leihoa*, Itxaropena, Zarautz.
- PIKABEA, J., 1993, *Lapurtera idatzia (XVII-XIX). Bilakaera baten urratsak*, EHU & Kutxa Fundazioa, Donostia.
- SALABERRI, P. & KAMINO, P., 2001, "Aditz trinkoen orainaldiko formak Luzaideko euskaran", *FLV* 87, 193-202.
- SALABERRI IBARLAKOA, 1856, *Vocabulaire de mots basques bas-navarrais traduits en langue française*, Lamoignon, Baiona.
- SARASOLA, I., 1991 [1986], "Elissambururen literatur obra. Piarres Adameren hizkeraz", in Jean Baptiste Elissamburu. *Piarres Adame*, Klasikoak 5, Euskal Editoreen Elkarte, Elkar, Donostia, 22-27.
- VIDEGAIN, X., 1983, "Alokutiboa Lopez-engan (1782)", in *Piarres Lafitte-ri omenaldia*, Iker 2, Euskaltzaindia, Bilbo, 625-646.
- VINSON, J., 1907, "Spécimens de variétés dialectales basques", *RIEV* 1, 627-633.
- , 1911, "Spécimens de variétés dialectales basques", *RIEV* 5, 211-223.
- ZUAZO, K., 1988, *Euskararen batasuna*, Iker 5, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 1989, "Zubereraren sailkapenerako", *ASJU* 23/2, 609-650.
- , 1998, "Euskalkiak. Gaur", *FLV* 78, 191-233.
- , 1999, "Baigorriko euskara kokatzeari buruz", *Lapurdum* 4, 247-277.
- , 2003, *Euskalkiak, Herriaren lekukoak*, Elkar, Donostia.

LABURPENA

Nafarroa Behereko ibarretako euskararen ehun ezaugarri baino gehiago aztertu dira artikulu honetan. Emaitzen arabera, erdiguneko Nafarroa Behereko mintzorik homogeenaren aldean, argi eta garbi ageri da, mintzorik berezientak Amikuzekoa eta Baigorrikoa direla; baita Nafarroa Behereko euskara orokor horrek batasun handixkoa duela ere. Batasun-mailarik handiena, Garazi, Oztibarre eta Arberoa-Iholdiko euskarak dute, inolaz ere. Ez diegu begia galdu Lapurdiko Aturrialdeko Bardozeko eta Beskoitzeko mintzoei eta bestalde, Hazparnealdeko euskara ere Nafarroa Beherekoarekin alderatu dugu. Hondarrean, Lapurdi barnealdeko Larresoro inguruko euskara ere aztertu dugu: emaitzen arabera, ez dirudi Nafarroa Behereko eta Lapurdiko euskara elkarrengandik dialektologikoki bereiztea batere gauza erraza denik, ez dirudi bien arteko muga dialektalaren lelo zaharrak egiantzekotasun handirik duenik.

RESUMEN

En este artículo se analizan más de cien características del euskara de los diferentes valles que componen la Baja Navarra. Dicha comparación interna nos muestra que las hablas que más divergen de lo que podemos llamar euskara bajo-navarro “central” o “general”, bastante homogéneo por cierto, son la de Mixe por el norte y la de Baigorri por el sur. El componente más homogéneo lo componen los valles de Cisa, Ostabat y la tierra de Arberoa-Iholdi. A nivel contrastivo, se ha comparado después el euskara de la Baja Navarra con el de los pueblos labortanos cercanos del valle del Adour, Bardos y Briscous, por un lado, y con el euskara de la zona de Hasparren, por el otro. Finalmente, se compara también con el habla del pueblo labortano central de Larresoro. Tal comparación nos muestra que resulta muy difícil hallar una frontera dialectal entre el euskara de la Baja Navarra y el de Labort.

RÉSUMÉ

Dans cet article on fait une analyse comparative de plus de cent des caractéristiques de l'euskara parlé dans les différentes vallées de la Basse-Navarre. Cela montre que les parlers les plus éloignés de ce que l'on peut nommer euskara Bas-Navarrais “central” ou “général”, assez homogène à vraiment dire, ce sont ceux de Mixe dans le nord et ceux de Baigorri dans le sud. À ce propos, les plus homogènes se trouvent dans les vallées de Cize, Ostabat et le pays d'Arberoue-Iholdy. Sur le plan contrastif, après on a comparé, d'un côté, l'euskara de la Basse-Navarre avec celui des villages labortanes qui se trouvent près de la vallée de l'Adour, Bardos et Briscous avec, d'un autre côté, l'euskara de la région d'Hasparren. Pour finir, on compare aussi avec le parler du village labortane central de Larresoro ce qui montre qui est très difficile de trouver une frontière dialectale entre l'euskara de la Basse-Navarre et celui de Labort.

ABSTRACT

In this paper we will be analysing more than one hundred characteristics of the Basque language spoken in different valleys in the Low Navarre province. As a result of this internal comparison it can be concluded that the most divergent varieties of the so-called “central” or “general” Low-Navarrese Basque, which is in fact rather homogeneous by the way, are the variety from Amikuze or Mixe in the northern area of Low Navarre and that from Baigorri in the south. The most homogeneous area is composed by the valleys of Garazi or Cize, Oztibarre or Ostabat and the area of Arberoa-Iholdi. From a

contrastive perspective, Low Navarre Basque has been further on compared in this paper to the variety from Labortan villages next to Adour Valley, namely Bardoze or Bardos and Beskoitze or Briscous, on the one hand, and to the variety from the area of Hasparren, on the other. Finally, Low Navarre Basque is also compared to the variety from Larresoro, in central Labortan area. This comparison shows the difficulty of determining the dialectal borderline between Low Navarre Basque and Labortan Basque.